

# Arrasate

P R E S S

1998ko  
Irailak 11  
419. zenb.

## Ortonovon dantzan

**IKUSPEGIA:** KARMELE PEREZ • **KIROLAK:** HONORIO IZQUIERDO  
**EUREN IKUSPUNTUTIK:** EUGENIO ITURRIOTZ • **KULTURA:** KARMELO URIBARREN

JAPAN

Olaya's

MANDARINA DUCK



LUIS ESTEVE



GILBERT

V RONCATO VALIGERIA

# Ipek Denda



Udazken eta neguko moda  
zain duzu IPEKen. ZATOZ!!

Ipek

Iturriotz, 19 Herriko Plaza  
ARRASATE

*Kalitateak mugarik ez.*



## ARGI-PLASTIC

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa  
Zigorrola, 1 8. Pabeiloia  
Tel.: 77 11 30  
ARRASATE

# Beldurraren kultura

ikus daitekeen kolonialismoak disimulurik gabe mutilatzen zaitu: esatea debekatzen dizu, egitea debekatzen dizu, izatea debekatzen dizu. Ezin ikus daitekeen kolonialismoak, berriz, zure patua morrontza eta zure berezko izaera ezintasuna direla sinistarazten dizu: ezin dela esan, ezin dela egin, ezin dela izan sinistarazten dizu. Horrela dio Eduardo



Karmele Perez

Galeanok bere liburutako batean, batez ere herri menperatuen aldarrikapena izan nahi duten bere liburu horietako batean.

Azken urteotan dexente entzun izan dut kolonialismoaren erreferentzia, baita bizi eta sentitu ere kolonialismoaren errefe-

## “Kolonialismoa hurbileko esperientzia dugu”

rente izatearen zama. Izan ere, Amerikako herrietatik igarotzeak historiak europarroi barkatu ezin digun zorraren kontzientzia baitakarkigu. Kolonialismoa, beraz, garapen bide amaigabearen dirauten herriko erreferentzia dela erakutsi digute.

Baina bizi dugun egoera, kolonialismo hori nozitzen ari garela ere erakusten ari zaigu. Batzuoek ikusten den kolonialismoa ari gara nozitzen, disimulurik gabe mutilatzen baikaituzte: adierazpen askatasunik ez daukagu, gure herria eta gure kultura eraiki eta garatzeko egin ditzakegun ekintzak debekatzen dizkigute, gu geu izatea debekatzen digute. Beste batzuek ikusten ez den

kolonialismoa nozitzen dute, ezin dela eta ezin dugula esan, ezin dela eta ezin dugula egin, ezin dela eta ezin dugula izan sinisten baitute. Eta hauek kolonialisten menara bizi dira, esan dezaketela baina ezin dugula esan aldarrikatzen dutenen menara; egin dezaketela baina egitea debekatzen digutene menara; izateko eskubidea dutenen baina izateko eskubidea kentzen digutene menara.

Kolonialismoa ez dago urrun, ez dago zoritxarrez Hirugarren Mundutzat eza gutzen dugun horretan bakarrik. Kolonialismoa hurbileko esperientzia dugu, pertsonok banatzen eta etsai bihurtzen gaituen drama dugu, norbaitzuek hitzaren, berezotasunaren, pluraltasunaren, bakearen aldeko kulturaren eta ezezagun eta menperaez in egiten zaienaren aurka dituzten interesek beldurraren kulturara behartzen gaituztelako.

*“Hamalau urte igaro dira Arrasate eta Ortonovo harremanetan hasi zirela, eta ordua izan liteke aldi berri bat irekitzeko, herri biak senidetuz”.*

**Fortunato Giovanini**

# 14

## Preso arrasatear ikasten ari dira espetxean

Mondragoeko 14 atxilo ikasten ari dira espetxean: 8 goi mailako ikasketak egiten ari dira; 6, berriz, bestelako ikasketak. Arrasateko Udalak 296.000 pta ordaindu dizkio UNEdi preso hauen testuliburuak ordaindu ahal izateko.

Z E R D E L A E T A ?

## Arrasatekoa eta ikastolan ikasia? Kontuz!

Karrerako azken urtean curriculum ugari bidali zituen bere ikasketekin zerikusirik izan zezaketen enpresa askotara. Uda honetan dei bat jaso zuen Bartzelonan ezarritako multinazional batetik. Horrelakoetan ohitura den legez, hainbat azterketa igaro behar izan zituen, elkarrizketara iritsi aurretik.

Dena primeran joan omen zen. Emaizak oso onak bide ziren. Orain enpresako buruak eta epaimahaiak erabaki behar zuten: prestakuntza ona, argitasuna planteiamentuetan, nortasun egokia, hizkuntzak primeran... Dena ondo, harik eta hautagaiaren herriartasuna galdetu zuten arte: Mondragoekoa. “Nola? Non ikasi du?” Ikastolan. “Ez dago zer eginik. Ez dugu arriskurik nahi. Esan ezetz”.



**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK  
ARRASATE PRESS

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otarola kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 77 05 65. Faxa: 943 77 09 40  
E-mail: arrasatepress@readysoft.es  
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Doagracias, Marian Porcel, Maider Osa. **Publizitateak:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo, Arantza Lagunilla. (Tel.: 943 77 08 15). **Administrazioa:** Apurtzane Gaiñzarain (Tel.: 943 79 02 26) **Disinela:** Txos Azumendi. **Asteburutako berriemakileak:** Lierni Urbarren. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Itxaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Aguirreureta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoaga, Amaia Jaurregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopi, Jon Otazola, Jabi Luengo, Maite Barrena. **Banaketaren ardura:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). ©ARRASATE PRESS. Tirada: 6.300. **Legu-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Geru Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

**ARRASATE PRESS** paper birziklatuaren egiten da.

**Azaleko argazkia:** Albaro Arregi.



Arrasateko Udalerriaren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**Ostirala, 11**  
 • Egunez: Korkuera, Musakola  
 • Gauez: Mozos, Bergara

**Larunbata, 12**  
 • Egunez: Irizar, Erguin  
 • Gauez: Guallar, Bergara

**Igandea, 13**  
 • Egunez: Español, Iturriotz  
 • Gauez: Mozos, Bergara

**Astelehena, 14**  
 • Egunez: Korkuera, Musakola  
 • Gauez: Estella, Bergara

**Astearte, 15**  
 • Egunez: Amezua, Sta. Marina  
 • Gauez: Guallar, Bergara

**Asteazkena, 16**  
 • Gauez: Zabala, Zarugalde

**Osteguna, 17**  
 • Gauez: Ruiz, Maala

## BEHARREZKO TELEFONOAK

### Eritxteak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 79 53 00  
 Igoalatorioa ..... 943 79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) ..... 943 79 39 00  
 (emakumeak) ..... 943 79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

### Gurutze Gorria

Bergara ..... 943 76 55 76

### DYA

Antzuola ..... 943 78 71 57

### Anbulatorioak

Arrasate (Larrialdiak) ..... 943 79 13 57  
 • Txanda hartzeko: medikuntza  
 orokorra eta pediatria 943 77 03 46  
 • Espezialitateak ..... 943 77 05 78  
 ..... 943 77 12 64  
 Ohati ..... 943 78 08 52  
 Eskoriatza ..... 943 79 98 58  
 Aretxabaleta ..... 943 79 74 58  
 Aramaio (945) 943 45 51 16

### Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziazki 943 45 87 44

### Udaltzaingoa

Ohati ..... 943 78 04 11  
 Bergara ..... 943 76 14 69  
 Arrasate ..... 943 79 14 39  
 Aretxabaleta ..... 943 79 10 52  
 Eskoriatza ..... 088

### Ertzaintza

Arrasate ..... 943 79 71 99

### Suhiltzaileak

Udal taldea ..... 943 79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea ..... 088

### Matxurak

Urak (udal zerbitzua) ..... 943 79 09 00  
 Argindarra (Iberduero) ..... 943 12 01 62  
 Gasa ..... 900 40 05 23  
 ..... 943 79 78 44  
 ..... 943 79 76 78

### Garraioak

Taxiak ..... 943 79 12 22  
 PESA ..... 902 10 12 10

### Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza ..... 943 79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

### Kontsumitzailearentzako informazioa

KIUB-OMIC ..... 943 79 51 55

### Monterron liburutegia

Monterron ..... 943 77 01 05

### Irratia

Arrasate Irratia ..... 943 79 58 77

## EDERLANEKO ZUZENDARITZARI

Ederlaneko langile asko etorzen dira LAB sindikatura, era guztietako bidegabeke-riak jasan behar izaten dituztelako: eurok bakarrik lan egitea asteburuetan lau txandatan, lan egutegiaren aldaketa mordoa, edo urtebete lanean eraman arren, hilabete-ko oporrak eman ordez, 15 egun baino ez ematea, beste-ak beste.

Beti entzun izan dugu gizatasunak eta elkartasunak pixu handia izan zutela kooperatibismoarentzat oinarri izan zen filosofian, baina dirudenez, hauek beste garai bateko kontuak dira. Gaur egun kooperatibetan behin behineko kontratua duten langile kopurua ikaragarria delako eta kooperatibistak behin behineko langileen ezegonkortasunaz baliatzen direlako.

Arestian aipatutako irregulartasunak elkarte anonimoetan baino inpunitate handiagoz egiten dira kooperatibetan. Izan ere, elkarte anonimoetan badute euren ordez- kariaukeratzeko ahalmena. Kontratua luzatu nahi izanez gero, Ederlanen onartu egin behar dira ipinitako baldintzak.

*Deba Garaiko LAB sindikatua*

## LAGUNDU JABI MAYORRI

Kaixo! Jabi Mayor Domin- go 27 urteko arrasatear gaztearen lagunak gara. Jabi, maiatzaren 11n alde biko

pneumotoraxa eta biriketako distressa izan zuen eta koman sartu zen burmuinean izan- dako kalteengatik.

Bi hilabetez Gasteizko Txagorritxu ospitalean egon ondoren, beragatik ezin zite- keela ezer egin adierazi zio- ten familiari eta Donostiako Matia Fundazioa geriatriko- ra bidali zuten.

Gizarte Segurantzak ez dauka era honetako gaixoak zaintzeko zentzurik eta etxe- ra eramateak egoera begeta- tiboan iraunkorki eta betira- ko gelditzea ekarriko zukeen. Gainera etxeak baldintza batzuk —ohiko etxeek nor- malean betetzen ez dituzte- nak— bete beharko lituzke Jabi zaindu ahal izateko.

Burmuineko gaitzetan espezializatutako zentru pri- batu berezien berri eman zio- ten familiari, non, gaixotasu- netik guztiz zuzpertzera lor- tuko ez balu ere, oinarritzko funtzio batzuk garatzen lagun- duko liokeen hobekuntza lor- tuko zuen. Zentru horietako bat Arrasateko Aita Menni da, familiarentzat aukera posible bakarra, gainera.

Zentru honetako mante- nuak hilean milioi bat peze- tako kostua du; kantitate ika- ragarri honi familia gutxi- k aurre egin diezaiokete eta Jabiren familia zoritxarrez ez da salbuespena.

Ez dakigu zenbat denbo- ra beharko duen osatzeko eta ez dugu gainera, hala gerta- tuko den inongo ziurtasunik. Hala ere, gogor lan egingo dugu berak, beste edonork bezala, merezi duen aukera izan dezan. Oraingoan Jabi- ri gertatu zaio, baina hau ira- kurtzen ari zareten zuetako edonori gerta zekioketen, eta ziur gaude zuek ere lagun- tzeko edozer egingo zenuke- tela.

Jabik aukera hau merezi duela uste dugu bere lagunok eta lanean jarri gara hainbat ekintza antolatzen, sortuko diren gastuei aurre egiteko beharrezkoa den dirua atera ahal izateko. Honetarako dei egiten diogu Arrasateko herriari, zuon elkartasunik gabe gure ahalegina alferri- kakoa izango baita, eta elkar- lan eraginkorra eskatzen dizuegu, hemendik antolatu- ko diren ekintzetan parte har dezazuen.

Ekarpen ekonomikorik egin nahi baduzue, honako hauek dituzue diru sarrera egiteko kontuen zenbakiak

Euskadiko Kutxa:  
 3035.00471.19.047003681.9

Gipuzkoako Kutxa:  
 2101.0123.92.0122426505

Jasoko dugun laguntza, ziur baikaude etorriko dela, alde z aurretik eskertuz,

*Jabilon lagunak*



*Sili Sili*  
**Martxa eta estilo handiko arropa**  
 Iturriotz, 9 • ARRASATE  
 Tel.: 79 81 82

**UGARAN jatetxea**  
 Garagartza auzoa  
 Tel.: 79 76 58  
 ARRASATE

**M**  
**MEMESA**  
 Industria hornidurak  
 Tel. 71 24 25


# Egingo zenuke lana etxetik?

Berriki egindako inkesta batean galdetutakoen %64k ezetz esan du



**Iñigo Louvelli**  
(23 urte)  
Langilea

Ez, ez nuke egingo. Nahiago dut lantokira lanera joan, etxetik lan egin baino.



**Luis Aspiazu**  
(35 urte)  
Langilea

Ez. Aspergarria irudituko litzaidake bakarrik, lagunik gabe, etxean lan egitea. Lan egiteak duen alde on bat lagunak egitearena da.



**Felix Urrutia**  
(38 urte)  
Langilea

Ez, ez litzaidake gustatuko. Aspergarria izango litzateke.




**Andoni Zeziaga**  
(22 urte)  
Ikaslea

Ez. Nahiago izango nuke jende artean lan egin. Bakar-danean lan egitea ez da nire gustukoa.



**Mikel Arrizabalaga**  
(28 urte)  
Langilea

Ez, ez nuke etxetik lan egingo. Aspergarria iruditzen zait. Pixka bat mugitu egin beharko dugu gainera, ez?



**Juan Carlos Gonzalez**  
(28 urte)  
Langilea

Ez, nahiago dut kanpoan lan egin, etxean baino. Beti etxean egotea aspergarria izango litzateke.



**Ana Aranzabal**  
(31 urte)  
Langilea

Ez, ez litzaidake gustatuko. Jendearekin harremana izatea gustatzen zait.



**Leire Pagaldai**  
(20 urte)  
Ikaslea

Bai, egingo nuke, baldin eta etxean lan egiteko behar-korik nukeen bulegoa ondo pres-tatuta edukiko banu.

## HARATEGIA-URDAITEGIA SALGAI

Azoka plazan dagoen Rosi Harategia eskualdatu edo jabez aldatu nahi da.  
Egoera ezin hobea eta prezio interesgarria

Interesatua bazaude edo berri gehiago jakiteko, dei egin  
943 79 16 71/943 77 04 66 telefonoetara edo Txomin Harategira  
joan zaitetzke (Azoka Plaza, 19. postua).

## ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

Maita ezazu zeure burua.  
Zure osasuna zaintzeko gaude!  
Zatoz guregana!

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34

# Arrasate

## LANAK

### MUSAKOLAN

Asfaltatze eta konpontze lanak A-20 eremuan.

### AZATZA ETXEETAN

Monterron-Musakola pasealekuko lanak.

### ARRASATE PASEALEKUAN


Pasealekua konpontzeko lanak.

### OTALORAN

Pilotalekuaren lanengatik kamioiak arituko dira.


### URIBARRIN

Uriburu kalean eskailerak egiten aridira. Astebetez barrakak egongo dira.



**Biztanleak: 24.257**  
**Eremua: 33 Km<sup>2</sup>**  
**Garaiera: 211 metro**


## Eguraldiaren aurreikuspena



**OSTIRALA 11**



**LARUNBATA 12**




**IGANDEA 13**

Zeruak estalita egongo dira eta euri tantaren batzuk eror daitezke. Tenperatura jaitsi egingo da.

Laino ugari egongo dira. Euria egingo duen arren, arratsalde parterako atertu egingo du.

Lainoak nagusituko dira eta tarteka euria egingo du. Tenperatura ez da aldatuko.

## Ilargia



**Ilbehera**

Igandean, Joan Krisostomoren eguna, ilbehera izango da.

## Mezak

### Parrokia

**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)  
**Igandean:**  
09:00 (erdaraz)  
11:00 meza nagusia (euskaraz).  
12:30 (elebiduna)

### San Frantzisko

**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)  
**Igandean:**  
09:00 (euskaraz)  
10:00 (erdaraz)  
11:00 meza nagusia (euskaraz).  
12:30 (erdaraz)  
19:00 (elebiduna)

### Uribarri

**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)  
**Igandean:**  
11:30 (euskaraz)  
12:30 (erdaraz)

### San Andres

**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)  
**Igandean**  
10:00 (erdaraz)  
11:00 (euskaraz)  
12:30 (erdaraz)

### Santa Teresa

**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)  
**Igandean**  
10:30 (erdaraz)  
11:30 eta San Isidron (euskaraz)  
12:30 (erdaraz)

## Urkuluko urak behera egin du

Ez da inor ikaratzeko moduan, baina Urkuluko urtegiaren ur mailak zortzi puntu egin du behera abuztu siku eta lehor honetan zehar. Gaur egun bere kapazitatearen %79,5ean dago.

Joan den apirilaren hasieran Arrasate Press Urkuluko uraren mailaren berri ematen hasi zenean, Urkulu %87ra zegoen ia. Harrezkero, euri dexente egin zuen eta guk

jaso dugun unerik altuena maiatzaren 15ean eman zen, San Isidro egunean: orduan Urkulu ia-ia beteta zegoen: bere kapazitatearen %98 pasata.

Maiatzetik iraila bitartean, berriz, euri gutxi egin du eta hori nabarmena da: Tarte horretan uraren maila 18 puntu jaitsi da.

Hala ere, berriro diogu: uraren maila jaitsi egin da, baina ez dago larrizterik. Oraingo.



Paper zati hau SAIOAra  
ekarriz gero, aerobic saio bat  
izango duzu dohainik!

SAIOA GIMNASIOA

# BERRIKUNTZA ARRASATEN

## Umeentzako aerobic-a!

Orain gainera, aerobic egiteko lurzoru berezia jarri dugu.

**Irakasleak:**  
Beatriz Rubio  
Jon Aranbarri  
Izar Gomez  
Nerea Mata

**Aerobic mailak**

- Umeentzako aerobic-a
- Hasiberrientzako aerobic-a
- Aurreratuentzako aerobic-a

**Aerobic programa:**

- High-Low Impact
- Funky
- Salsa
- Step
- Tonifikazioa

Astelehenetik  
ostiralera,  
goizez eta  
arratsaldez

Eman ezazu izena  
lehenbailehen!

# 11 ostirala

■ ZINEA

Torrente, Alai zineman, 22:00etan.

■ PERKUSIO GAUA

Txatunga Bembe, Percussion eta Arrasate Musika-leko Perkusio Taldeak, perkusio gaua eskaniko dute Monterron parkean. Hala ere, eta eguraldiak lagunduko ez balu, saioa Amaia antzokian izango litzateke. Emanaldia gaueko 22:00etan hasiko da eta sarrera 600 pta. kostako da.

■ URIBARRI-ERGUIN JAI AETAN

23:00etan *Fabula* rock taldearen berbena egingo da, Arimazuri plazan.

# 12 larunbata

■ ZINEA

*Arma Letal IV*, Alai zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ KONTZERTUA GAZTETXEAN

*Hard Boiled* Bartzelonako taldea eta *Mixil* talde lasartearra arituko dira gaueko 22:00etatik aurrera.

■ URIBARRI-ERGUIN JAI AETAN

10:00etan diana eta erraldoi eta buruhandien kalejira, Arrasateko txistulariekin. 11:00etatik aurrera, atletismo probak Iturripeko pistan, eguerdiko 12:00ak arte. 16:00etan mus txapelketa. 17:00etan haur jolastokia irekiko da Usaetxe eta Larrea plazan. 19:00etan Andoni Egaña, Ekaitz, Goikoetxea eta Irazu bertsolariak arituko dira.

22:00etan herri afaria Hilarion jatatxean. 23:00etan *Prisma* orkestrarekin berbena, Udalpe plazan.

■ SAN MARTIN FERIA

Goizeko 07:00etatik aurrera egingo da Bergaran aurtengo San Martin feria. Lehenik eta behin, txekorraren erreketara egingo da seminarioko patioan. 10:00etan barazki, fruitu, lore eta gazta lehiaketa jokatu da. 12:30etan Bergarako odolosteak dastatzeko aukera izango da San Martin Agirre plazan eta 13:00etan, trikitilarien eta dultzaineroen kalejira hasiko da. 18:00etan herri kirolak izango dira San Martin Agirre plazan eta 20:30etan herriko txekorraren dastaketa, seminarioko patioan.

# 13 igandea

■ ZINEA

*Arma Letal IV*, Alai zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ KONTZERTUA

*Anari* bakarlaria arituko da Jai Zale tabernan, arratsaldeko 20:00etatik aurrera.

■ URIBARRI-ERGUIN JAI AETAN

10:00etan diana eta kalejira erraldoi eta buruhandien, Arrasateko txistularien laguntzarekin. 13:00etan, aizkolariak Larrea plazan. 17:00etan pailazoak Usaetxe eta Larrea plazan. 19:00etatik 21:30etara *Txinparta* taldearen berbena, Udalpe plazan. 22:00etan jaien azken traka.



**PRESTAKUNTZA PROFESIONALERAKO ZENTRUA**

Katy's-ek lan merkatuko atek zabaltzen dizkizu... berme guztiekin.

**ILE APAINGINTZA ESTETIKA KIROMASAJEA**

Independentzia, 22-1 • GASTEIZ  
TEL.: 945 12 07 32



**ERRASTI KRISTALDEGIA**

Plastiko eta burdinazko hodiak beirina eta kristalak osagaiak


Olarte kalea, 47 beheha Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

**JESUSI ETXEBARRIA MUSIKA ESKOLA**

**1998-99 ikasturteko matrikula epea zabalik irailaren 7tik 30-era arte.**

Solfeo, abesbatza, pianoa, akordeoia, flauta, txistua eta gitara (azken modalitate guztietan klasikoa, rock-a, blus-a, modernoa eta abar, solfeo edo zifraz)

Iturriotz, 32 etxabea ARRASATE Tel.: 943 79 17 67



**OSASUN IKASKUNTZA ZENTRUA**

Zure lan etorkizunerako behin betiko irtenbidea

**KLINIKA LAGUNTZAILEA**

**UMEZAINNTZA**

**GERIATRIA LAGUNTZAILEA**

Independentzia, 22-1 • GASTEIZ  
TEL.: 945 12 07 32



# 14 astelehena

■ ZINEA

*Arma Letal IV*, Alai zine-  
man, 19:00etan eta 21:00etan.

■ BEGIRALE TITULUA

Txatxilipurdik begirale titulua eskuratzeko ikastaroa antolatu du. Matrikula epea irailaren 26 arte egongo da zabalik. Ikastaroa urritik maiatza bitartean eskainiko da.

■ GERONTOLOGIA IKASTAROA

ICTE erretiratuen institutuak, gerontologia ikastaroa antolatu du irailaren 23tik urriaren 2ra bitartean. Zahartzaro osasuntsua. Geriatrian arreta eta prebentzioa ikastaroa, zaintzaile, senide, osasun alorreko langile, etxez-etxeko laguntzaile eta erresidentzietako langileei zuzendua da.

■ HELDUENTZAKO IKASTURTEA

Helduen Heziketarako Zentruak matrikulaldia ireki du. Interesatuak Ferrerías kaleko egoitzara jo dezakete edo 943 77 11 72 zenbakira deitu.

■ HAUTESKUDE ZENTSUA

Irailaren 14 arte, astelehena, egongo dira ikusgai hauteskudeetarako zentsuaren zerrendak udaletxeko arkupeetan. Erreklamaziorik egin behar izanez gero, idazkaritzara jo beharko da.

■ KIROL BEGIRALE IKASTAROA

Deba Bailarako Euskara eta Kirol Zerbitzuak oinarritzko ikastaroa antolatu du begiraleentzat, eskola kirolaz. Ikastaroa irailaren 24tik 26ra eskainiko da Bergarako kultura etxean. Ikastaroan izena emateko bailarako edozein kirol zerbitzutara jo daiteke.

■ PINTURA IKASTAROA

Amaia Bengoak eskainiko duen margo ikastaroan izena emateko epea irailaren 14tik 19ra izango da. Ikastaroa Monterrongo kultura etxean izango da eta matrikula 15.000 pta. kostako da.

■ KIROLDEGIKO ORDUTEGIA

Datorren irailaren 14an irekiko dira Musakolako kiroldegiko barruko igerilekuak. Ordutegia astelehenetik ostiralera bitartean, 08:00etatik 21:00etara, larunbatetan 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:30etara izango da. Igandean, berriz, 09:00etatik 13:30etara. AUKEAren 98-99 kirol kanpainarako izen ematea, bestalde, zabalik dago.

■ KATIXIMA HASIKO DA

Irailaren 16an eta 17an haurrak eta gazteak kristau ikasbideetan matrikulatu ahal izango dira, arratsaldeko 17:30etatik 19:00etara.

■ IMSERSOREN BIDAIAK

Immersok hirugarren adinekoentzat antolatzen dituen oporraldietan izena emateko epea urriaren 1ean amaituko da. Portugal, Kanariar Uharteak eta kultura ibilbideak eskaintzen dira aurten.

# 15 asteartea

■ ZINEA

*Arma Letal IV*, Alai zine-  
man, 19:00etan eta 21:00etan.

# 17 osteguna

■ ZINEA

*Godzilla*, Alai zine-  
man, 19:00etan eta 21:30etan.

*ESLU*

**ileapaindegia**

Tel.: 943 79 37 88 • ARRASATE

## ZENTRU PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Trataera txar fisiko edo psikikoak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 ■ Tel: 943 79 48 77 ■ ARRASATE

USTEAK USTE

**Kontuz bizikletan**

**A**stearte eguerdian istripu ikusgarri bat izan genuen gure bulegoen parean. Aparkatu berri zegoen auto bateko atea bat-batean ireki zen eta lasai-lasai zetorren txirrituzaleak aurrez aurre jo zuen. Gaztea lurrean geratu zen, ahoz gora, luze. Min handia hartu zuen lepauztaiaren eta besoan. Kaskoa ere apurtuta zeukan.

Anbulantzia eta Ertzaintza etorri bitartean, mutila lasai egon zen, bere inguruan bildu zirenekin hitz batzuk elkartrukatu. Hamar minuturen buruan ospitalera bidean abiatu zen, ambulanzia batean.

Zoritxararren barruan, mutilak nahiko zorte ona izan zuen: kaskoari esker, ezbehar handiagoa ekidin zuen; lepauztaia haustea, bestalde, nahiko garbia izaten da normalean.

Gure kaleak geroz eta beteago daude. Automobilak nonahi dabilta. Denok, auto, txirritu eta motor jabeok geroz eta erneago ibili beharra dugu, elkarren ondoan ibiltzeko, inor kaltetu barik.

Joxe Aranzabal



**Kirola eta dopina**

Eugenio Iturriotz \*

**G**izakia betidanik saiatu da bere errendimendua handitzen, lanean, gudian, kirolean eta abarretan. Esate baterako, egunero bizitzan ontzat hartzen da kafea hartzea erneago egoteko edo lan gehiago egiteko.

Kirolean lehia danagusi eta onena izateko gogoak edo irabazteko grinak eramaten dituzte kirolariak droga hartzera.

Hau jakinda, Nazioarteko Batzorde Olinpikoak zerrenda bat egin du sustantzia dopanteak zeintzuk diren jakiteko eta dopin kontrola ezarri du lehiaketa guztietan. Baina gaur egun hartzen diren sustantzia edo farmako batzuk ez dira antzematen.

**Azken metodoak:**

1. Odol transfusioa

Lehiaketa baino hilabete aurretik kirolariari 1-1,5 litro odol ateratzen zaio. Lehiaketa baino egun batzuk lehenago

(1-7), gordeta zeuden globulu gorriak suero fisiologikokoan urtu eta kirolariari sartzen zaio berriro. Zenbait ikeritzaileen lanetan frogatzen denez, globulu gorrien 400 ml.ko transfusioa egin ondoren, 15 kilometroko erlojupekoan minutu bateko hobekuntza lor daiteke.

2. EPO, eritropoietina, globulu gorrien eraketa kilitkatzen duen proteina da. Horrezaz gain, burdina odol-leko globulu gorriei lotzea ere lortzen du. Gaur egun, biologia molekularrari esker, EPO sintetizatzea lortu da eta

“  
Zeozer egin behar da,  
zeren dopinak txikitu  
egiten baititu kirolaren  
oinarriak  
”

giza EPOa eta laborategian lortutakoa bereizi ezinezkoak dira.

EPO lasterketetan eta lehiaketetan erabiltzen hasi zirenean, 12 txirritulari afizionatu holandar hil ziren, orduan ez baitziren oraindik ezagutzen ez erabili beharrekoko dosi egokia eta ezta haren ondorengo eraginak ere (hipertentsioa eta tronbosia).

Sartutako odola edo EPO antzematea oso zaila da eta hori horrela, dopin mota hauei aurre egiteko erabil ditzakegun metodo bakarrak zehar-kakoak dira. Adibidez, hematokritoaren tasa neurtzea.

**Tourrean gertatu denari buruz**

Jakina zen txirritulariek zerbait hartzen zutela. Frantziako kode penalean, mundu osoan aintzindaria den eta dopina kirolean arautzen duen legeak galarazi eta zigortu egiten du kirolariari debekaturiko gaiak salerosi, gomendatu edo ematea.

Dopin afera aspaldi hasi omen zen eta honen atzetik zebiltzan. Tourrean txirritulari taldeek gainean darumate tresneria guztia eta agintariak une aproposa ikusi zuten ikerketa sakona egiteko, nahiz eta Tourra kolokan jarri.

Ez dakit azkenean aferra hau zertan geldituko den, baina zeozer egin behar da, zeren dopinak txikitu egiten baititu kirolaren oinarriak. Non gelditzen dira joko garbia, kiroltasuna eta abar?

\* Sendagilea

**HIES EKIMENA**  
Astelehen, astearte eta ostiraletan Setatik 8etara.  
Tel.: 79 26 99

**•ARTEA•**  
Eskulanak eta lientzoak ENMARKAZIOAK  
Laminak, Izpiluak, Margoak  
Ferrerias, 11 Tel.: 943 - 77 10 95  
ARRASATE

**Hilbera kafetegia**  
Uribarri Etorbidea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 22 70

## ANTZUOLA

### ④ Erretiratuen Elkarte

Antzuolako Erretiratuen Elkarte arduradun barik dago abuztutik. Berrehun erretiratutik erabiltzen duten lokala kudeatzeko, lagun baten bila dabil Antzuolako Udala. Arduradunak autonomo bezala lan egingo du. Ez du erretiratuen lokalaren errentarik ordaindu beharko. Interesatuak udaletxera jo dezakete lanaren baldintzak ezagutzeko.

## OÑATI

### ② Hilaren 13an Haur Dantzariak

Haur Dantzarien Eguna ospatuko da Oñatin igande honetan, hilak 13. Antolatzaile lanetan ibili den Oñatz Dantza taldearen esanetan, izan liteke 400 dantzari inguru biltzea igandean. Guztira inguruko herrietako 12 dantza taldek hartuko dute parte eta goizeko 09:00etatik aurrera ibiliko dira herriko kaleetan zehar, ikuskizunak eskaintzen. Egun honen XXVIII. edizioa izango da aurtengoa.



## ARETXABALETA

### ③ Herriko telebista laster

Aretxabaletan telebista jartzeko asmotan dabilta. Proiektuaren bultzatzaileak diren zortzi lagunek, herriko berriak

eman eta euskara bultzatzea dute helburu. Oraindik ez da tresneria iritsi, baina dagoneko hasi dira programazio lanean. Albistegia eta herriko taldeen parte hartzea bultzatuko duten saioak egingo dira. Dena ondo baldin badoa, herri-

ko telebistaren lehen emisioa Gabonetan ikusiko dute aretxabaletarrek.

## ESKORIATZA

### ④ Kalteak udal eraikinetan

Eskoriatzako udaletxean, udal pilotalekuan, Luis Ezeiza eskolan eta Jose Arana ikastolan ezezagun batzuk sartu ziren oporrak aprobetxatuta. Eraikin hauen serralak apurtu zituzten eta ate, lehio eta barruko zenbait instalazio txiki-titu zituzten. Eskoriatzako udalak neurriak hartuko ditu berriro gerta ez dadin.

## BERGARA

### ⑤ San Martin feria

Goizeko 10:00etan zabalduko dituzte postuak baserriarrek Bergarako San Martineko ferian. Barazkiak, gaztak, fruituak eta lorak erosteko eta ikusteko aukera izango da. Arratsaldean, berriz, odolosteak jan eta herri kirolekin gozatu ahal izango dira. Arrasatearrak ere izango dira: Kontxita Berezibarrak barazkiak eta Joxe Iturbek gaztak eramango dituzte.

X Bataioak, jaunartzeak, enpresa bazkariak eta lagunartekoak

X Karta eta menu berezien zerbitzua

DENBORALDIKO  
PLATERAK,  
GIRO ONENEAN



# BASTER-ALDE

# J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABALETA

Tel.: 943 79 24 58

## LAN eta BEKA ESKAINTZAK

Arrasateko Udalak lan eta beka hauek eskaintzen ditu:

a) Aldi baterako lan-kontratuak  
• IRRATIKO TEKNIKARIAK (2)

b) Beka  
• UDAL IRRATIRAKO

Oinarriak: Udaletxean jaso daitezke

Eskaerak aurkezteko azken eguna: irailak 21, astelehena.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Sails ■

## Lanak S. Juan de Dios ospitalean

Gesalibarko San Juan de Dios ospitalak lanak hasiko ditu urte honen amaieran psikogeriatria zerbitzu berri bi sortzeko.

Behin behineko Barnera-tze Unitatea arazo psikikoak dituzten 65 urtetik gorakoei begira egingo da. 17 lagunentzako tokia izango du, egonaldi mugatuetan. Eguneko Ospital Psikogeriatriko berriak, bestalde, 15 lagun hartzeko tokia izango du.

## Eneko Allende hil da

Joan den asteazkenean Eneko Allende Zaldunbide, 22 urteko mondragoetarra Zarautzko hondartza hil zen, oraindik ezagutzen ez diren arrazoi-erengatik. Eneko Arkoko lan-kide dugun Kaitin Allenderen neba zen. Sasoi batean ATBn hartu zuen parte, musika saio bat egiten. Hiletak ostegun-ean egin ziren, San Frantzisko elizan. Gorpua, berriz, Oken-don lurperatu zen, Araban.



## Datorren astean hasiko da gripearen kontrako txerto kanpaina



Anbulatorioan astelehenetik ostirala bitartean emango dira txertoak, 09:00etan hasita.

65 urte baino gehiago eta gaitasun kronikoren bat duzue-nok, adi: irailaren 14tik hasi-ta, eta urriaren bukaera bitar-tean, gripearen kontrako txer-tatze kanpaina egingo da Arra-sateko ambulatorioan.

Irailaren 14tik hasita eta urriaren bukaera bitartean, gripearen kontrako txertatze kanpaina egingo da Arra-sateko ambulatorioan. Kan-paina hau 65 urtetik gora-koentzat eta gaitasun kroi-nikoren bat duten pertsonen begira egingo da, urtero beza-la.

Txertoak Arrasateko ambulatorioan, auzoetako erretiratuen etxeetan edo ezin-

durik daudenen kasuetan, beren etxeetan hartu ahal izan-go dira.

Anbulatorioan astelehe-netik ostirala bitartean eman-go dira txertoak, goizeko 09:00etatik arratsaldeko 15:00ak bitartean. Dena den, jende nagusiari gauzak erra-zago jartze aldera, Lehen Mailako Asistentzia Taldea auzoz auzo joango da, egun jakin batzuetan.

Irailaren 23an, adibidez, San Andres auzoko alkatetzan izango dira. 24an Abaroan. 25ean Uribarriko jubilatuen etxean. 28an, astelehena, San-tamainan. 29an Musakolako jubilatuen etxean. Toki haue-


tan guztietan txertatzeak eguerdiko 12:00etatik 13:00ta bitartean egingo dira. Gara-gartzan, berriz, hilaren 30ean egingo dena, eguerdiko 12:30etan hasiko da.

Inor balego ezintasunak jota etxetik atera ezinik, dei egin dezake Anbulatoriora. Kasu horietan txertoa etxean emango zaio.

Anbulatoriora doazen 65 urtetik gorakoek ez dute bolantea eraman beharrik izango. Nahikoa izango dute Osakidetzaren txartela edo Nortasan Txartela erakustea.

65 urte ez dituztenek, ostera, beren medikuak egin-dako bolantea beharko dute.

Erdiko kale. 79 19 37



Ferreries. 943 79 87 62

**Plus Ultra**  
taberna

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tel. 943 79 20 57

**"PAL"**

burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3  
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

**ARRASATE**  
**HOTELA**



Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16  
ARRASATE

# HAUEK ERE BAI...



NTZANE GARDOKI  
Kazetaria



JON IÑAKI ISAZELAIA  
Bertsolaria



ARANTXA OZAETA  
Euskara Irakaslea



EIDER OTXOA  
Txabalipurdiko Dinamizatzailea



ANDONI K. DE BEDIAIUNETEA  
Euskara Batzordeko Burua



AINHOA ERKIZIA  
AEK-ko Irakaslea




AINTZANE IASA  
Euskara Hitzamen Teknikaria



JASONE MENDIZABAL  
AEDko Idazkari Orokorra



GARIKOITZ KORTAZAR  
Arrasate Irratiko Langilea



ENERITZ GARRO  
Zahar Berriko Partaidea



JON ANDUEZA  
Kazetaria



RUFINA OLASAGASTI  
EKINeko Lehendakaria



OXE FELIX D. DE TUESTA  
Eskoleko Eusk. Teknikaria




JUAN LUIS AREXOLALEIBA  
EMUNeko Bazkidea



PATXI GOIKOLEA  
Bertsolaria



PREMÍN SANPEDRO  
EHEko Partaidea



PATXI MONTERO  
Nekazaritza Teknikaria



CHIEKO HATA  
AEK-ko Irakaslea



JOSE R. ELORTZA  
EUSKALANeko Partaidea

...ESAN ZEUK ERE

# BAI EUSKARARI!

dek

## Emakume Saileko buruak erantzun

Udaleko Emakume Saileko batzordeburua den M. Angeles Iñurritegik, Arrasateko Emakumeen Asanbladak kale-ratutako idatziari erantzun nahi izan dio. Asanbladak azaltzen zuenez, taldeak Emakumearen batzordetik alde egitea erabaki zuen "Iñurritegik emakume batek Aterpetxean sartzeko egindako eskabidearen aurrean izan duen jarrera ikusirik".

Emakumeak, portugaldarren familiakoa, ebakuntza egin behar zitzaioela eta, eskatu zuen babes. Iñurritegik orain adierazi duenez, "babesetxearen araudian argi eta garbi agertzen da 1., 2. eta 3. artikuluetan zer baldintza dagoen babesetxean sartzeko. Edozein modutan ere, ezinbestekoa da erroldan egotea eta pertsona horiei laguntzeko familiaritatekorik ez izatea herrian". Gauzak horrela, "erroldan ize-nik eman barik zuela egiaz-tatu ostean, bertan behe-rua utzi nuen deialdia indarrean dagoen araudiari jarraituz" esan du Iñurritegik.

# Alkateak dio ijitoekin ez duela prebarikaziorik egin

SOS Arrazakeriak Jose Mari Loiti alkatearen kontra jarritako auziaren diligentziak joan den ostiralean hasi ziren. Egun hartan, Blanca Roncal Ongizate batzordeko lehendakariak eta Iñigo Garitano Ongizate zerbitzuetako buruak, Arrasaten erroldatu nahi diren bi familia portugaldarren kasuaren lekuko moduan hitz egin zuten Bergarako lehen epaitegian.

Asteartean, berriz, alkateak berak egin zuen berba epailearen aurrean auziperatu gisa, prebarikazio salaketari aurre eginez. Ordu luze batez epaileak egindako galderari erantzun eta gero, lasai irten zen Loiti epaitegitik "argi daukat ez dudala prebarikaziorik egin eta lasai nago". Alkateak orain arte azaldutako argudioak berretsi zituen. Adierazi zuenez, bi familiak parkin batean bizi diren bitartean, ezin dira erroldan sartu, hirigintzako hainbat arau ez dituztelako betetzen.



Jose Mari Loitik bere argudioak berretsi zituen epailearen aurrean.

SOS Arrazakeriak legearen aurka jokatu duela leporatu dio alkateari. Taldearen abokatuak defendatu zuenez, legez, eskubidea dute bi familiek herriko erroldan sartzeko. Jose Mari Loiti alkateak, ordea, zalantzan jarri du erroldatze legea betebeharraren derrigorrezkotasuna "Hor dago legea, baina nik zalantzan jartzen dut derrigorrez bete behar den edo ez. Batez ere, euren baldintzak kontuan hartuta. Furgonetan bizi dira,

inolako segurtasunik gabe. Orduan beste edozein hiritarri esango geniokeena esan diegu: handik joateko. Argi daukat erroldan sartuz gero ere, ezin direla parkinean bizi. Ez da euren kontra joatea, arauak betetzea baizik".

Gauzak horrela, alkateak eta gobernu batzordeak erabaki berri bat hartu dute aste honetan: bi familiei dauden tokitik aldegitiko agindua ematea. Hirugarren aldia da kanporatzeko agindua ematen dela.

## OPEL ASTRA BERRIA

OPEL



**TAKOLO AUTOAK**

**Irailaren bukaeratik aurrera,  
4 ateduna eskuragarri izango duzu**

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia Tel.: 943 79 05 86 ARRASATE

astea bi hitzetan

■ **Enrike Pagoaga aske utzi dute**

Joan den ostiral gauean aske geratu zen Enrike Pagoaga mondragoetarra Madrilgo Auzitegi Nazionaletik pasatu eta gero. Enrike eta bere anaia Jose Mari Hendaian atxilotu zituen polizia frantsesak ETaren azpiegiturarekin zerikusia zutelakoan. Jose Mari kargurik gabe ateratu zen Baionako polizia etxetik.

■ **Euskal Herritarrok**

Astearte arratsaldean sekulako ilara sortu zen Arrasateko notarioaren etxean, Euskal Herritarrok plataformari bere atxikimendua adie-

razi nahi zioten lagun mordoak elkartu zela eta. Izan ere, 400 lagun inguru pasatu ziren. Sinadura emateko azken aukera datozen astelehen eta asteartean izango da.

■ **Oporrak Imersorekin**

Imersok publiko egin du aurten adineko jendearentzat prestatu duen opor egitaraua. Urtero bezala, eskariak udalaren Ongizate Saillean jaso ahal dira, udal txean bertan. Kanarietara 10.000 lagun joango ahal izango dira aurten, zortzi egunean zehar, ia 28.000 pta.tan. Kultura ibilbeak, berriz, 15.000 lagunek egin

ahal izango dituzte, 6 egunean zehar, 17.000 pta.tan. Portugalera, berriz, 3.000 pertsona joan ahal izango dira, 20.000 pta ordainduz. Arrasateko jende askok egiten du eskaera, gehienak Kanarietara joateko.

■ **Bernar film saritu dute**

Jon Anduezak, Xabier Alberdik eta Aitor Agorriak egindako *Bernar* film laburra Eltxeko Nazioarteko zine eta bideo lehiaketan saritu dute, Alikanten. Filmak lehen saria eta 200.000 pta. jaso ditu bideo atalean. Talde honek hainbat sari irabazi ditu dagoeneko.

■ **“EUSKONEWS & MEDIA”**

Eusko Ikaskuntzak “Euskonews & Media” argitalpen elektronikoa aurkeztu du aste honetan, Donostian. Interneten kontsultatu ahal izango da. Lau hizkuntzatan argitaratuko da eta euskal kulturarekin zerikusirik duten gaiak argitaratuko ditu. Jose Mari Muxika Arkoko lehendakariordea Argitalpen batzordean dago eta Media ataleko arduraduna da. Argitalpenaren diseinua, bestalde, hemengo enpresa batek egin du: AZK Interactive enpresak.



Guregana 1961ean iritsitako beste guardia zibil baten semea, ordea, zeharo desberdina gertatu zen. ‘Me ha dicho mi padre que el tuyo está fichado’ bota zion behin ikaskide bati, errepresioaren hatzaparra noraino iritsi zitekeen ikasten hasi ginen une ilun haietan. 1972an, milizietako praktikak Espainiako hiriburuan egiten ari nintzela, bertako metroan suertatu zitzaidan buruz buru ikaskide ohiarekin topo egitea. Bere poza azaldu zidan, piura hartaz jantzita nindoala militar profesionaltzat hartu ninduen eta. Ez nuen bere okerretik atera nahi izan. Ezkutuko aitorten bat egin zidan, gainera, bera ere ‘espainiar nazioaren’ zerbitzuan ari zela, hain zuzen: polizia zen eta lanak Euskal Herrira ekartzen zuen sarritan, hemengo giro politikoa ‘ongi’ ezagutzen baitzuen”.

**JOSE MARI**

**VELEZ DE MENDIZABAL**

“Nire Haurtzaroko Arrasate”



● **Txitxinpe** ●  
**Berezitasunak:**  
 Kafea, ardoa, urdaitegia,  
 fruitu lehorrak  
 Arrasate Pasealekua, 33  
 ARRASATE • Tel.: 943 - 79 67 76


**LAKET**  
 Bonaventure • Diesel  
 Pepe • Levis  
 Otalora, z/g Behea ARRASATE  
 Tel.: 943 79 11 72

**GORKA**  
 ILEPAINDEGIA  
 SOLARIUMA  
 Ferrerías, 35 ARRASATE  
 Tel.: 943 77 13 78

**URRATS**  
 AHOLKULARITZA  
 GARIBAI, 3  
 Tel.: 943 79 87 74  
 ARRASATE


## PISUZKO FESTA

Urtero bezala, Extremadura Eguna ospatu zuten joan den asteburuan lurralde hartan jaio baina Arrasaten bizi diren guztiak. Landan elkartu, barbakoak piztu, frutak atera eta sekulako bazkaria egin zuten. Musika eta umore ona izan ziren nagusi.



## AUPA LIERNI!

Asteburueta gure kazetari finak lan bikoitza egin behar izan zuen joan den igandean. Gatzagako jaietara joan eta Dorletako Ama txirrindu lasterketa jarraitu zuen ATBrentzat. Irabazleen podiumera argazkiak ateratzera gerturatu zenean, azafata faltan zeudela eta, berari tokatu zitzaion irabazleari lore sorta eta bi musu ematea. Hori bai langile fina!



# AMAGARA

Erdiko Kale, 54 etxabea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 09 09



### MARITXU KAJOI ESKAINITZA BEREZIA



## SOLARIUM-A



# 6 saio + 1 oparitura = 6.000 pta

Adi! Irailaren 14tik urriaren 2ra.

Maritxu egunean politagoa egongo zara, oporretan hartutako kolorea gordetzen baduzu.

Eta gainera, gure Estetika Zerbitzuak eskaintzen dizkizu:

- Aurpegi eta Gorputzerako Tratamendu Bereziak.
- Depilazioa argizari bero nahiz hotzarekin, tratamendu progresiboan.

- Depilazio elektrikoa, Blend sistemarekin.
- Makilajea, Manikura, betileen permanente eta tintea.
- Ezpana, Begi eta eta Bekainen makilajea permanente eta guzti.
- Kontsulta medikoa eta Terapia Bereziak.



## BIZITZA OSOA ELKARREKIN


Mikel Arrieta eta Maria Ormaetxea abuztuko egun batean ezkondu ziren orain dela 50 urte. Egun seinalatua ospatzeko, familia elkartu eta, orduan bezala, meza

Arantzazun eta bazkaria

Txopekuan egin zuten.

Zorionak

bioi!



## ZORIONAK TXAPELDUN!

Jesus Mari Plazaola, Udalako artzainak, Gipuzkoako Artzain Txakur Txapelketa irabazi zuen joan den igandean, Mandubiako zelaietan. Plazaolaren txakurrak, *Artzai* izenekoa, eta bigarren tokia lortu zuen Jose Mari Madinabeitiaren *Bat* txakurrak, Gipuzkoa ordezkatuko dute Euskadiko txapelketan. Txapelketa arratsaldeko 17:00etan hasiko da bihar Otxandixon. Ziur gaude *Artzaik* eta Plazaolak egingo duten lan onaz. Zorte on!



**C&C**

**LLONGUERAS**

**ILE APAINDEGI ETA ESTETIKA  
IRAKASKUNTZA ZENTRUA**

Euskal Herriko LLONGUERAS  
irakaskuntza zentru bakarra

Ikas ezazu nazioarteko lehenarekin

**Olagibel, 61 Tel.: 945 12 03 60 GASTEIZ**

**PUB  
HAIZEA**



Aspaldi genuen gogoia Ortonovora egiteko. Abuztuan joateko gonbita genuen eta aspaldi hasi ginen bidaia gertatzen. Badaezpada, eta gauzak ondo prestatze aldera, gutariko ordezkari bat hantxe izan zen Maiatzaren Lehenan. Haiek itzuli eta gero, areagotu egin genuen prestatuntza. Oraingo honetan Arrasateko dantza talde biak batera joango ginen: Lore Gazteak eta Txikitxu-Arrosaitz. Abuztuaren 4an abiatu ginen Arrasateetik, arratsaldeko 19:00etan. Guztira 31 lagun, tartean dantzariak, txistulariak, trikitilariak eta laguntzaile taldea. Irungo lau lagunak ahaztu barik, jakina.

Gurekin batera Ibon Garcia, Eneritz Tirados eta Ainhoa Arregiren artean generamatzen, Ortonovoko *mostren* erakusteko. Bidaiari zehar beroa izan genuen nagusi. Biharamunean iritsi ginen, neka-neka eginda, baina pozik. Heldu bezain laster, Luni Mare udal eskoletara eramán gintuzten, ostatu hartzera.



Zaintiratu batek eragotzi zion Ibai Uriarteri dantza egitea.

# Ortonovo: bidaia baten kronika

Ortonovo herri bitxia da. Aspaldi batean, erromatarrek itsas bazterrean eraikitako herria egon zen han: Luni. 2.000 lagun izatera iritsi omen zen. 60.000 lagunentzako anfiteatroa ere bazuen. XII. mendean, berriz,

izurrite batek eraginda, hustu egin zen. Harrezkero, bada, herritarrak muino baten gainean ezarri ziren. Hantxe dago orain herri zaharra. Azken urteotan, aldiz, herria itsaso aldera ari da berriro ere zabalitzen. Gaur egun 8.000 bizilagun inguru ditu.

Luni Mare eskolak herriaren behealdean daude. Otorduak eta ospakizun gehienak, ostera, herriaren goialdean izango ziren. Beraz, egunean zehar hainbat aldiz tokatu zitzaigun harat-honat ibiltzea.

Aurreko gau osoa autobusean igaro eta gero eta euroari

buruzko hitzaldi aspergarri bat entzun ondoren, maiatzeko ihintza bezala hartu genituen Luni Mareko oheak. Gu koi-taduak! Eltxoak genituen zain!

## BI GAIXO

Iritsi bezain laster, bi baja izan genituen tropelean: Amalur Lopez Sarriegi katarroak jota iritsi zen, autobusaren aire girotuak areagotua, baina Tarcisio Andreani medikuari esker, gainerakoekin dantzatu ahal izan zuen.

Ibai Uriartek, bere alde-tik, zaintiratu bat izan zuen egitarauz kanpoko lehen dantzaldian. Hanka ondo begiratu eta gero, igeltsua jarri zioten. Bera izan genuen dantzan egiteko gogo handien erakutsi zuena, baina ezin.

## DANTZALDIK ETA PAELLA

Lehen dantzaldi ofiziala hila-  
ren 7an egin genuen, eskul-  
tura eta margo erakusketa ire-  
ki aurretik. Inaugurazioaren  
ondoren ere, jo eta ke aritu  
ginen dantzan, agintarien eta  
herritarren aurrean. Gauerdi-  
ra arte.

Paella prestatu genuen  
egunean ere—dantzariok ez,  
egia esan, hori gure lagun-  
tzaileen balentria izan bai-  
tzen—, jira eta bira ibili ginen,  
dantza batean, uju eta aja, tri-  
kitixaren eta txistuaren soi-  
nuen laguntzarekin. Egita-  
rautik kanpo, jakina, baina tre-  
mendo.

Esaten hasi ginena. Gure  
arteko nagusiek 200 lagu-  
nentzako paella prestatu zuten,  
arrakasta izugarri: ezin hobea  
egon zen, jendeari izugarri  
gustatu zitzaion eta hainbeste  
lagun izan arren, dena ondo  
eta garaiz atera zen. Bravo!



### ORTONOVO (Italia)

**Kokapena:** Muga egiten du  
Carrararekin. Pisa 60 km.ra  
dago, Florentzia eta Geno-  
va 120 km.ra

**Biztanleak:** 8.000

**Garaiera:** Tirreno Itsasoa-  
ren mailan

**Probintzia:** La Spezia

**Historia:** 1237an sortu  
zen, Luni erromatar asen-  
tamenduaren ondoan.

Euskaldunok sukaldatzeko  
omen dugun trebezia inork ez  
zuen zalantzan jarri.

Ez gara sukaldari on baka-  
rrak, hala ere. Eskerrak! Orto-  
novoko ehiztariak beren festa  
egunean dantzatzera gonbida-  
tu gintuzten. Hori bai, dantzatu  
aurretik eta ostean, bapo jan-  
da eta edanda. Azken egune-  
an ere egin genuen dantza, San  
Laurendi plazan, mezaren oste-  
an. Egia esan, nekaturik samar

geunden ordurako, baina pozik.

### AGUR, BAINA EZ ADIORIK

Ortonovon izan ginen bitarte-  
an hainbat bidaia egin genituen,  
inguruak ezagutzeko. Horrela,  
Florentzia eta Pisa ezagutu geni-  
tuen. Baita Carrarako marmo-  
lezko harrobi ospetsuak ere.  
Libre genituen tarteetan izan  
ginen hondartzan edo mendian  
edo erosketak egiten.

Abuztuaren 10ean agur  
esateko ordua etorri zen. Baz-  
kalostean izan zen. Alkateak  
eskerrak eman eta haxe esan  
zigun: “Hamalau urte igaro  
dira Arrasate eta Ortonovo  
harremanetan hasi zirela eta  
ordua izan liteke aldi berri bat  
irekitzeko, herri biak seni-  
detuz”.

Ondoren, opari trukea.  
Haiek Ortonovoko grabatu  
bat oparitu ziguten. Guk, aldiz,  
Jakionez lantzen dituen Deba  
Garaiko jaki onak.

Eskola iritsi ginenean  
bezala utzi genuen. Irten aurre-  
tik, azken tragoa Giorgioren  
tabernan. Ondoren, agurrak.  
Arratsaldeko 19:00etan abia-  
tu zen autobusa. Agur Orto-  
novo eta mila esker eskaini  
diguzun harreragatik!

Biharamon eguerdian Por-  
taloian ginen, etxean. ■

### Arrasateko dantzariak

# Arrasate-Ortonovo: 14 urteko harremanak



Italierrek ere ganoraz sukaldatu zuten.

Noiz eta nola hasi ziren Arrasate  
eta Ortonovo arteko harremanak?  
Atzera egin behar dugu 1984ra. Arte-  
an Albaro Arregi Arrasateko alka-  
tea zen eta onartu egin zuen Bego-  
ña Uriarte *Arremena* eskultore  
musakolarren proposamena, Aba-  
roa ondoan eskultura bat egiteko.

Beste eskultore askok bezala,  
Begoña egonaldi luzeak egina zen  
Carraran eta Ortonovon. Hango bi  
eskultore lagun ekarri zituen bere  
eskultura jartzeko: Luigi eta Cele-  
stino Corsanini. Luigi garai hartan  
Orione C.F. futbol taldeko lehen-  
dalaria zen eta Mondra gonbida-  
tu zuen Ortonovon txapelketa bat  
jokatzerara.

Lehen bisitaldia, beraz, 1984ko  
abuztuan egin zen. Arrasateko 70  
lagun, futbol jokalaria bame, Orto-  
novora joan ziren. Mondrak iraba-  
zi zuen “Tirreno eta Bizkaiko itsa-  
soetako Lehen Nazioarteko Futbol

Txapelketa”. Urte hartan bertan,  
azaroan, Ortonovoko talde batek  
bisita egin zigun, Begoña Uriarte-  
rekin batera.

Harrezkero mondragoetarrok  
maiz izan gara Ortonovon: futbo-  
listak, saskibaloi jokalaria, Arra-  
sate Musikal, Goikobalu, SDUC,  
dantzariak eta artistak, besteak  
beste. Italiarrak ere etorri izan dira  
behin baino gehiagotan. Hamar-  
garren urteurrenean harrera egin  
zitzaion udaletxean eta plaka bat  
eman, herrien arteko lotura gogo-  
rarazteko.

Ortonovoren arrastorik badago  
hemen: Begoña Uriarteren eskul-  
tura, Santa Barbaran dagoen bron-  
tzezko dragoia, Gino Corsanini  
ortonovotarrak egina, Besaideko  
eskultura berria, Yoshio Ogata egi-  
na, etab. Han ere bada gure aztar-  
narik: 1996an sequoia bat landatu  
zuten “Paseo di Arrasate”-n.


# Takoi, oinetako konponketak

Manuel Cruzek oinetakoak konpontzeko lantegia du Arrasaten. Bera da nagusia eta langile bakarra. Orain hiru urte zabaldu zuen, Kalealdean. Aurretik Tavexan ibili zen lanean, baina lanpostuaren behin behinekotasuna zela eta, bere negozioa zabaltzea erabaki zuen.

## OINETAKOAK

Oinetakoak konpontzeaz gain, esku edo bidaia poltsak konpondu, mota guztietako krema-lerak jarri edo aldatu, eta botoiak forratzen ditu. Hala ere, oinetakoak dira lan gehien ematen diotenak.

Bezero gehienek oinetako- en zorua aldatzea eskatzen diote. Berriak direnean, labankadirik ez izateko; zaharrak direnean, zulorik ez egiteko. Fine- nak emakumeak direla esaten du Manuelek, oinetakoak beti dotore eraman nahi dituztelako. Dena den, jende askok eramanen ditu zapatak konpontzera, batez ere larru onarekin eginda daudenak. "Hamabost mila pta edo gehiago gastatzen badituzu oinetako batzuetan, ez



Oinetakoak konpondu eta giltzak kopiatzeko zerbitzua eskaintzen du.

dituzu lehenengo pitzadurarekin zakarrontzira botatzen —dio Manuelek—. Kanpoaldeko larrua ondo dagoen bitartean, beste guztia konpon daiteke”.

Emakumezkoen oinetako- en zoruan tapak jartzea, 1.800 pta inguru kostatzen da. Gizonezkoen oinetakoetan, apur bat gehiago. Botoi bat gaineztatzea, 35 eta 90 pta. artean dago. Krema-lerak bat jartzeak, berriz, egin behar den

lanaren arabera prezioa du.

## ZERBITZU GEHIGARRIAK

Oinetako- en konponketari beste zerbitzu batzuk gehitu dizkio Manuelek. Alde batetik, oinetakoak zaintzeko kremak eta oinetarako barne zolak edo plantillak. Oinetako kremak argizari naturalak dira, larrua egoera onean gordetzeko. Barne zolak, gizon zein emakumeen oinetakoetara egokitzen dira.

Horrez gain, orain dela

urtebete Manuelek giltzak kopiatzeko zerbitzua jarri zuen. "Arrasaten ez da asko ikusten horrelakorik, baina beste toki askotan boladan jarri da oinetako- en lantegietan giltzak egitea. Gero eta gehiago zabalduko den zerbitzu osagarria izango da”.

Hainbat bezerok oraindik ez dakite zerbitzu hori duela, baina poliki-poliki zabalduko delakoan, nahiko pozik geratu da egindako inbertsioarekin.

**MEHER**

Maritzen egunean dotore-dotore joateko

Bañez doktorea, 1 Tel.: 943 79 63 85 ARRASATE

**AED ELKARTEAK**  
**GAZTE ERAGILE BAT**  
**KONTRATATU BEHAR DU**

Ordukako lanpostua  
Baloratuko da:

- Euskara maila
- Begirale, gazte eragile edo antzeko titulazioa
- Gazteekin esperientzia izatea

Curriculumak AEDra -Pablo Uranga, 6. behe- ekar daitezke irailaren 25a baino lehen.

**Berri gehiagorako dei egin 943 71 21 17/  
943 77 12 28 telefonoetara.**

## Feliciano Aranzabal lekuz aldatuko da

Feliciano Aranzabal-IFAM enpresako zuzendaritza kontseiluak Gipuzkoa etorbidean duen tokia utzi eta lantegia A-20 eremuan jartzea erabaki du, Musakolan bertan. Aldaketa noiz egingo duten urte hau bukatu aurretik erabakiko dute. Dena den, zuzendaritzako bozeramaile batek adierazi digunez, nahi izango lukete lekualdatzea urtebete eta erdiko epean egin da egotea.

Oraingo lantegitik

egingo den berrira ez dago alde handirik, 200 bat metro asko jota, baina horrelako aldaketek buruko min handiak eragiten dituztela jakinda, IFAMeko arduradunek prestakuntza lanak egiten dihardute.

IFAM Feliciano Aranzabalek sortu zuen orain berrogeita hamar urte baino gehiago. Giltzarrapoak eta itxigailuak egiten ditu eta hasieratik dago Gipuzkoa Etorbideko lurretan.

Zerk eragin du lekualdatze hau? Hirigintza Plan berriak. Egitasmo honen arabera, IFAM dagoen tokian etxeak eraikiko dira. IFAM, bere aldetik, Musakolako A-20 eremuan antolatzen ari den industrialdera joango da. Alejandro Altuna, Joma eta beste hainbat enpresaren ondora. Industrialde berrian zerbitzu hobeak jasoko ditu eta kamioien sartu-irtenak egiteko askoz egokiago izango ditu gauzak.



Gipuzkoako Etorbideko orubean etxeak egingo dira.

## Euroa

### Euroa eta Ecuia berdinak dira?

Ez. Ecuia diru saski bat da, hasiera batean Europako Batasuneko 12 herrialdeetako diruak barnean hartzen zituen, herrialde bakoitzak zuen garrantzi ekonomikoaren arabera mailakatuak. Euroa, berriz, Europako Diru Batasunean sartzen diren herrialde guztien diru bakarra izango da. Herrialde bakoitzeko diruak ordezkatuko ditu.



**Euro baten balioa**

**166,8 PTA**



# URONDO

## Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE  
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

# ERREBELATZE ESKAINTZA

**Errebelatu 4 Erroilu eta  
3 Bakarrik Ordaindu**



**Banaka  
ekar  
ditzakezu**



**ITURRIOZ, 8 (ARRASATE)**

# HIZKUNTZEN MUNDUA



Informa zaitez orain !



AHIZKE S.COOP  
Avda. de Alava, 4 - 20500 ARRASATE (GIPUZKOA)  
Tel.: 943 - 712055 Fax: 943 - 712181  
E-mail: secretaria@cim-idiomas.com  
http: www.cim-idiomas.com  
Oiakua, 14 - 20560 OÑATI (GIPUZKOA)  
Tel. 943 - 716000



bai&by

- ▶ Hizkuntza eta maila guztiak.
- ▶ Ordutegi malguak.
- ▶ Mediateka zure esku dohainik.
- ▶ Haur, gazte eta helduentzat.
- ▶ Multimedia sistemak.

## Oraingoan bai!

# IRAILA EUSKARAZ DATOR!



### ESKAINTZA

EUSKALDUNTZE maila guztiak, ALFABETATZE eta EGA.  
Ikastaro bereziak: merkataritza, sakontze,  
Arrasateko euskara...

### ERRITMOAK

2, 3, 4 eta 5 ordu egunero.  
(erritmo bereziak ere baditugu).

### BULEGO ORDUTEGIA

Goizez: 10:00-13:00 • Arratsaldez: 15:00-19:00.

### MATRIKULATZEKO EPEA

Irailaren 1etik 15era.  
16 urtetik gorakoentzat.  
Beka sistema daukagu.

## ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

Arimazuri plaza, 2 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 70 77

*Preferente mailako  
Mondra taldeko fisioperapeuta*

## HONORIO IZQUIERDO

***"Nire ustez, talde guztiek izan beharko luketa fisioterapeuta"***

— **Noiz hasi zara taldearekin lanean?**

— Uztailean hasi nintzen, baina abuztuaren erdialdetik hasi gara gorrerago.

— **Nolatan hasi zara fisioterapeuta lanetan?**

— Iaz nesken bigarren taldearekin aritu nintzen eta entrenatzaileak ezagutzen ninduen, preferentera pasa nahi nuen galdetu zidan.

— **Beharrezkoa da fisioterapeutaren lana?**

— Baietz esango nuke. Nire ustez, talde guztiek izan beharko lukete bat, gutxienez norgehiagokak jokatzenean, maila guztietan.

— **Zein da fisioterapeutaren lana?**

— Nire kasuan, entrenatzailearekin batera lesioaren bat duen jokalaria entzatzat ariketa eta entrenamendu bereziak antolatzea litzateke. Ez naiz masajista, baizik eta sendagileak egindako diagnosiarentzat onena zer den esaten duena.

— **Mondra esku honetan dagoela esan genezake, orduan?**

— Horretaz arduratuko dena ondoen egiten saiatuko dela esango dugu.

— **Sasoian daude jokalariek guztiak?**

— Badago lesionaturik eta entrenamendu berezia egiten ari dira. Guk esaten diegu zer egin eta zer ez.

— **Denboraldi hasiera dela eta, lan handia duzu?**

— Bai, denboraldi hasieran giharrak askoz ere kargatuagoak egoten dira. Baina dena entrenamendu motaren araberakoa da.



## TXIRRINDULARITZA Emaizta onak asteburuan



Joan den asteburuan Born Jay taldeko txirrindulariak Elorrio eta Gatzagan jokatu ziren probetan izan ziren. Larunbateko lasterketan Ruben Gonzalezek seigarren tokia lortu zuen eta bere taldekidea den Ramon Gartzia, berriz, bederatzigarrena. Igandean, bestalde, Dorletako Ama saria jokatu zuten Gatzagan. Lasterketa Pello Arreitunandiak, Olarra Erkoreka taldekoak, eskuratu zuen. Bere taldekidea den Jon Aperribai mondragoetarra seigarren izan zen. Born Jay taldeko David Sojo, berriz, zortzigarren.

## Goierriko itzulia

Ostiraletik eta igandera arte Goierriko itzulian arituko dira Born Jay taldeko txirrindulariak. Taldea Oskar Askasibar, Jon del Rio, Gaizka Lejarreta, Jokin Izeaga, David Montero, David Sojo eta Jon Unamunok osatuko dute. Gaizka Lejarreta ONCEk talde arrasatearrari utzitako txirrindularia da. Bestalde, Olarra Erkoreka taldeko Jon Aperribai ere izango da Goierriko itzulian.

Fagor taldeko gazte mailako txirrindulariak bestalde, Oñatin arituko dira larunbatean.

## FUTBOLA Hasiera eskasa



Igandean hasi zuen preferente mailako Mondra taldeak aurtengo denboraldia. Baskoniaren aurka jokatuak norgehiagokan, 1 eta 3 galdu zuten etxekoek. Mondragoetarrek aurreko astean XV.

Arrasate Saria eskuratu zuten arren, UDAREN aurka jokatuak partidaren, joan den igandean ezin izan zuten preferente mailara igo berri den talde donostiarraren aurka. Asteburu honetan, bestalde Mutrikura abiatuko dira Mondrakoak. Norghegiagoka larunbatean izango da arratsaldeko 17:00etan.

## SASKIBALOA Denboraldia hasteko




Arrasateko saskibaloia taldea 98-99 denboraldia prestatzen ari da. Joan den urtean maila galdu zuten arren, aurtengo berreskuratzekotan dira Jon Basurkoren mutilak.

Astehenean Beasainen aurka arituko da Arrasate saskibaloia talde nagusia. Beasaingo taldea maila berean dagoen arren, beste taldean jokatuko du denboraldia. Norghegiagoka arratsaldeko 20:00etan jokatu da, Iturripen.

Bestalde, eta junior eta haur mailari dagokienez, irailaren 19an, larunbata, izango dute lehen norgehiagoka. Bi taldeak Bergararen aurka arituko dira, Bergaran bertan. Saskibaloiko talde nagusiak ere izango du Bergararen aurka neurtzeko aukera.

## ESKUBALOA Lehen partida prestatzen



Jesus Mari Herreroren mutilak aurtengo denboraldia prestatzen hasiak dira dagoeneko. Oraindik ez dute taldea erabat osatu, baina lehenengo partida jokatzen entrenatzen hasiak dira. Lehenengo partida irailaren 20an izango dute, Gasteizko El Pilar taldearen aurka.



# Santo Tomas txapelketa abian

Eskuz binakako Santo Tomas pilota txapelketari ekin zioten ostegunean herriko pilotariak. Astero norgehiagoka bana jokatuko dute afizionatu, gazte, alebin, benjamin eta aurrebenjamin mailakoek. Honela, eta afizionatuei dagokienez, zortzi bikote arituko dira Iturripen: Lazkano-Belategi, Zugasti-Zubillaga, Etxebarria-Korta I., Juantxu-Rubia, Dominguez-Uribarren I., Errasti-Uribarren II., Osinaga-Zuazubiskar eta Korta II.-Belategi.

## KINIELAK EGITEKO AUKERA

Txapelketa honen berritasunen artean, kinielak jokatzeko aukera izango da. Mauri Zubillaga pilotari beteranoa eta herriko pilotariaren entrenatzailearentzat "apustuekin bultzada eman nahi diogu herriko pilotari". Kinielak kaleko Monte, Bengoa eta Branka tabernetan, Zigorrolako La Estrella eta Hostalen eta Erguingo Urrin eta Hilario jabetxean egin ahal izango dira. Apustua 100 pta. izango da eta osteguneko bigarren norgehiagokaren



Lehenengo aldiz, kinielak ere egin ahal izango dira.

emaitza asmatu beharko da. Asmatzailerik izango ez balitz, dirua hurrengo asterako geldituko litzateke. Kinielak Iturripen bertan ere egin ahal izango dira, bigarren partida hori hasi aurretik. Datorren ostegunean Korta-Belategi eta Osinaga-Zuazubiskar bikoteek jokatuko dute lehen norgehiagoka. Kinielan sartuko den partida, berriz, Zugasti-Zubillaga eta Etxebarria-Korta I. jokatuko dutena izango da.

## GAZTEAK ERE BAI

Aurrebenjaminentzako antolatutako Santo Tomas txapelketa herri artekoa izango da, herrian bertan ez baitago bikote nahikorik. Gauzak honela, Aretxabaleta, Oñati, Bergara, Antzuola, Plazentzia eta Arrasate arituko dira larunbatero, goizeko 10:00etatik aurrera Iturripen. Arrasatetik Aitor Fernandez eta Ibai Bolinaga arituko dira. Makatxenako aurrebenjaminen saria eskuratuzutenak, hain zuzen ere.

Gazte mailan bestalde, Eskoriatza, Aretxabaleta, Elgeta, Bergara, Antzuola eta Arrasatek jokatuko dute, asteazkenero.

Arrasatetik Uribarren eta Jimenez I. arituko dira. Ordezkoak, Zuazua, Rodriguez eta Urkia izango dira.

Hirurogei pilotari arituko dira eskuz banakako txapelketan. Alebin eta gazte mailakoak eta beste batzuk datorren astean ekingo diote txapelketari.

## Ohorezko ligan arituko den gazte mailako Mondra

Denboraldiko lehen norgehiagoka larunbatean jokatuco dute Santo Tomas Lizeoaren aurka. Arratsaldeko 16:30etan..

Aitor Laskurain, Sergio Olivenza, Aner Elorza, Koldo Balanzategi, Illart Etxebarria, Aitor Rodriguez, Jon Muruamendiaraz, Iker Aranburu, Egoitz Moreno,

Kepa Barbarias, Oxel Arrieta, Iban Garai, Harkaitz Ganzarain, Ibai Uriarte, Iban Tierno, Iker Okaranza, Beñat Alberdi, (1. mailako gaztea) Mikel Arkauz (1. mailako gaztea), Arkaitz Garmendia (1. mailako gaztea) eta Aitor Urizar (1. mailako gaztea). Entrenatzailea: Dabid Zaitegi.



## INAKI TXINTXURRETA (UDAL IDAZKARIA)

# “Ez zara baten zerbitzaria, baizik”

**I**nakik zortzi urte egin ditu Arrasateko Udaleko idazkari gisa. Urrian Donostiara joango da trafikoko negoziatuko buru bezala. Hala ere, gogoan izango du gure artean bizi izan duen guztia.

— **Udal idazkariak orain arte behin behinekoak izan dira. Zaila da behin betiko bat aurkitzea?**

— Estatu mailako lehiaketak gainditu behar dira. Gainera, lehen mailako idazkaria izan behar da—lehiaketak gainditu eta gaitasuna duena udal handi batean aritzeko— eta euskarazko 4. hizkuntza eskakizunaren jabe. Eta noski, Arrasatera etortzeko gogoia ere behar da. Oso zaila da, idazkari gutxi daude eta lehen mailakoak. Gipuzkoan esaterako, Eibarren eta Donostian baino ez daude. Lanpostu honetan ziurtasunik ez izan arren, arrisku handiegirik ere ez dago plaza galtzeko.

— **Lan berria oso bestelakoa da?**

— Guztiz. TAO kontuez eta horrelakoez arduratuko naiz. Hemen denetik landu behar izan dut. Han ez dut orain arteko lanik egingo. Erantzukizuna askoz ere txikiagoa izango da, baina aldi berean, orain arte ikasitakoa alboratuta utziko dut. Orain arte erreferentzia juridikoa izan naiz eta han ez naiz inoren erreferentzia izango.

— **Zer salatuko zenuke udalaren gestioan?**

— Hori oposiziori utziko diogu. Dena gaizki egiten dela diote, bai orain eta bai lehen. Baina hemendik udal gestioan ondo ez dauden hainbat gau-

za ikusten dira. Esaterako, ez da berdin tratatzen mundu guztia eta hori litzateke zuzendu eta salatu beharreko zer-bait.

— **Nola bizi izan zenuen zentsura botoa?**

— 1991n presio handia izan zen, EAJ-PSEren

arteko hitzarmena zela eta. 1995ean, berdin gertatu zen, baina hirutariko gobernuarekin. HBk alkatetza lortu zuen, baina ez gobernuko gehiengo. Hori zela eta, garbi zegoen etor zitekeela halako zentsura botoa. Egoera oso atipikoa zen. Niretzat berezia izan da, sartu nintzenetik 1997 arte hiru legegintzaldi landu ditudalako alkate berarekin. Zentzu horretan aldaketa nabarmena izan da, batez ere bakoitzak bere ohiturak eta lan egiteko moduak dituelako.

— **Egoera horrek izan du eraginik zure lanean?**

— Bai, horrelako ger-



**“Beti saiatu behar zara adierazten zure iritzia ez dela halakoren nahiak betetzeko, baizik eta azterketa baten ostean iritsitako ondorioa”**

# eta korporazioaren aholkularia”

takizunek zaildu egiten dute lana. Dena luparekin begiratzeko da eta noiz egingo duzun zerbait gaizki zain daudela dirudi. Beti saiatu behar zara adierazten zure iritzia ez dela halakoren nahiak betetzeko, baizik eta azterketa baten ondorioz iritsitako ondorioa. Ez zara baten zerbitzaria, baizik eta korporazioaren aholkularia. Hortxe dago profesionaltasuna.

— **Eta portugaldarren kontuarekin, berdin gertatu zaizku?**

— Bi aukera zeuden: erroldan sartzea edo ez. Dau-

den tokitik bidali behar bazaie, ez erroldatzea zuzena eta koherentea da juridikoki. Zer egiten duzu handik bidalitzeko eta aldi berean erroldan sartuz gero? Ez du zentzurik. Erabakiak beste norbaitek hartzen ditu eta zu aholkularia zara. Gainera, nire ustez ez dago erantzukizun penalik eta auzia artxibatu egingo du epaileak. Beste kontu bat da erroldan sartzea dagokien edo ez.

— **Zein izan da bizi izandako unerik latzena?**

— Zure iritzia konpartitu ez eta errespetatu ere egiten ez dutenean. Ez ditut une asko

gogoratzen, baina osoko bilkura batean iritzi politikorik ez adierazteko esan zidaten, eta hori oso gogorra izan zen. Min handia egiten dit beste inork pentsatzen duenean iritzi bat ematen dudanean beste norbaiten interesak defenditzen ari naizela.

— **Espero zenuen Arrasaten zortzi urte egiterik?**

— Ez, ezta pentsatu ere. Hasieratik itzultzeko asmoa nuen. Oso zaila da zure gustuko lanpostu batekin nahi duzun lekura joatea. Ez dira zuzenbidean lizentziatuenetzako lanpostuak ateratzen.

Zuzenbidearekin lotuta, hala ere, badago gutxi landutako esparru bat: udal txikietarako aholkularia; horretan ere pentsatu nuen.

— **Zein da Arrasateko lekurik politena?**

— Santa Barbara. Herri barrua zatarrak da.

— **Herriko ezer aldatuko zenuke?**

— Arrasatek hirigintza aldetik ez du alternatiba handiegirik. Lurra eskasa dauka. Baina, ahal den neurrian, enpresak herritik atera behar-lirateke. ■



LIRAIN

ESTETIKA-ZENTRUA  
EMAKUME-GIMNASIOA

- Urriaren hasieran irekiko dugu!
- Emakumeentzako gimnasioa eta estetika-zentru mistoa.
- 300 m<sup>2</sup> eta talde profesionalena, zerbitzurik onena eskaintzeko.

Bixente Ferrer kalea • ARRASATE  
(Sarrera: Mondragon Hotelaren ondoan)



# 9899 Ikasturtea

- Oinarrizko Ofimatika Office '97 Inguruan
- Diseinu eta Komunikazio Grafikoa
- Fotokonpozizioa:
- Adobe Photoshop
- Komunikazio eta Sare Lokalak: Windows NT
- Programazio Informatikoa
- Kontabilitate eta Komertzial Gestio mekanizatua
- Zerga Gestioa PYMES-etan
- Giza Errekurtsoen Administrazioa
- Kanpo Komertzioa
- Mekanografia ordenagailuz
- Laguntasun Klaseak
- Postari Oposaketak
- Planoen Interpretazioa
- Kalitatearen Gestioa
- Internet

- Administrazio Teknikaria
- Administrazio Laguntzailea

## BERRIAK

- Hegalaldi Azafatak (TCP)
  - Hegalaldi laguntzaileak-gizonezkoak
- (Titulazio Ofizialeko ikastaroak)
- Ekipo informatikoen mantenimendua eta

**LANGAI-  
Euskal Lan  
Zerbitzura  
Atxikia**

Larunbat  
goizetan klaseak  
emateko ankera

## MATRIKULA ZABALIK


AKADEMIA

# BASTIDA

CENTRO HOMOLOGADO POR EL INEM

Araba Etorb., 3 - 1.a  
20500 Arrasate-Mondragón  
Tel.: 943 79 35 33  
Fax: 943 79 06 28  
E-mail: bastida@tsai.es

# Galarta eta Ormaetxearen margoak erakusgai



Estibaliz Ormaetxea eta Julio Galarta margolari arrasatearrok.

Hilabete honetan zehar bi margolari arrasatearrek beren margolanak jarriko dituzte jendaurrean. Julio Galarta eta Estibaliz Ormaetxea dira artista hauek. Galartaren margoak Zarauzko Kayua arte-aretoan izango dira ikusgai, irailaren 5etik 30era bitartean. Ormaetxearenak, berriz, Gasteizko Eduardo Dato erakusketa aretoan.

Galartak Katalunian egin zituen bere margolaritza ikasketak, eta Satusasagna eta Puigdemolas izan zituen irakasle, lehena erretratuan eta bigarrena paisajeari dagokionez. Antza denez, 1956 eta 1957. urteetan lanean ziharduena enpresan hiru hilabetezko lizentziak eskatzen zituen, Bartzelonako Saint Jordi eskolara joan ahal izateko. Mugimenduari buruzko irakasle, aldiz, Muntaner maisua eta Carlos Rivera izan zituen.

## PAISAJEAK GUSTUKO

Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako paisajeak oso gustuko ditu Galartak. Ahantzuran murgildutako bazterrak, belarrek estaltzear dauzkan bideskak. Dena den, erretratu eta bodegoiak ere marrazten ditu. Berak jakinarazi digunez, "erretratueta dedikatzea zailagoa da, modeloak falta baitira".

Zarautzko erakusketa honetan berrogeita hiru bat koadro erakusten ditu, batez ere paisajeak eta bodegoiak.

## GALARTA ESTIBALIZEN IRAKASLE

Estibaliz Ormaetxea margolaria ere arrasatearra da. 1974. urte inguruan ekin zion margotzeari. Hasiera batean Arrasaten biltzen ziren, eta irakaslerik gabe, elkarri lagunduz ikasten zuten. Gerora irakasle bat ekarri zuten, eta

harekin batez ere bodegoiak lantzeari ekin zioten. Julio Galarta bera izan zuten maisu gero, eta honekin kalera joaten ziren margotzera. Garai haiek gogora ekartzean, Estibalizek zera dio: "orduak lotsa handia pasatzen genuen. Orduak eta orduak igaroten genituen zutik, eta zenbaitean hotz handia pasatzen genuen".

Gasteizko erakusketa honetan formato txikiko 28 margolan erakutsiko ditu. Halere, emakume hau ez da orain arte egindakoaz auzatzen. Izan ere, bere erronka nagusia "margolanetik margolanera gauza berriak ikasiaz joan eta etengabe hobetzea" baita.

Beraz, inork margolaritza gustuko badu, bi artista handi hauen margoak Zarautzen eta Gasteizen izango ditu ikusgai.

KARMELO URIBARREN, ARGAZKILARIA

# Mundu indigena objetiboan

Karmelo Uribarren arrasatearrak bere lehen argazki erakusketa inauguratu zuen joan den ostiralean Kajoi tabernan.

Inaugurazio ekitaldira herriko jende ugari hurbildu zen, baita herriko hainbat argazkilari ere. Orain urte batzuk Karmelok Guatemalan eta Mexikon atara zituen argazki mordoak ikus daiteke. Zuri-beltzeko argazkiak hormetan eta koloretako diapositibak hiruzpalau monitoretan.

— Zer ikusten da zure argazkietan?

— Nire asmoa hango parajeak eta jendea erakustea izan da. Ez dut argazki artistiko berezirik egiteko asmorik izan, gauzak diren bezala jasotzeko baizik.

— Gutemala, Mexiko... oso lurralde ezberdinak dira?

— Oso inpresio ona izan nuen leku bietan. Guatemala lurralde naturala eta silbestrea da. Guate City-tik pasatu besterik ez genuen egin. Hiri hori mustro bat da, baina bestela nekazaritza ingurua da nagusi. Baserritar asko dago eta antzinako bizimodua dute. Mexiko, aldiz, pixkat modernoagoa da. Dena den, lurralde zabala da eta gu Yucataneko inguru turistikoa eta Chiapasen izan ginen.

— Pertsonak garrantzia handia dute zure argazkietan...

— Bai. Argazkiak ahalik eta naturalen ateratzen saiatu naiz. Batzuetan, berriketan genbiltzala, kamera hartu eta, ezer esan barik, argazkia ateratzen nuen. Beti ere, errespetu osoz eta abusatu barik.

— Teknika berezirik erabili duzu argazkiak errebelatzerakoan?

— Solarizatu ditudan argazki batzuk badira. Aldamenean argazki bera trata-



mendu barik jarri dut, jendeak ikus dezan zer den solarizazioa eta zer efektu egiten duen. Batzuei gustatzen zaie eta beste batzuei ez.

— Argazki batekin geratzekotan?

— Badago argazki bitxi eta harrigarri bat: amak diren bi neskatila euren haurrak altzoan dituztela. Bestela, oso gustatzen zait Guatemalako Livingstone lurraldean ateratako bat. Han garifunak bizi dira. Izen bereko hizkuntza eta kultura rasta duten beltzak dira. Hondartzan nengoela, gazte garifun batekin gurutzatu nintzen. Buelta eman eta argazkia atera nion itsas ertzetik zihola.

— Erakusketa hau hurrengo batzuen aitzindaria izango da?

— Ez dakit. Akaso hurrengo batean Arrasateri buruzko erakusketa antolatuko dut. Hemengo jendea eta jaiak hartuko nituzke gaitzat.

## aste gazte

### ■ UNIBERTSITATERAKO AUTOBUSAK

• Ikasturtean zehar eguneroko joan-etorria autobusez egiteko asmoz bazabiltza, pasa zaitetz Gazte Bulegotik berri gehiago nahi izanez gero.

### ■ DIRULAGUNTZAK

• 98-99 ikasturtean izaera bereziko bekak, unibertsitate ikasketekin bateragarritasun erregimenean lankidetzan lanak burutzeko. Epea: irailak 30.  
• 98-99 ikasturtean unibertsitate mailako eta goi mailako beste ikasketak batzuk egiteko izaera orokorreko diru laguntzetarako deialdia. Epea: urriak 15.

### ■ LANA

• Sukalderako laguntzaileak behar dira lan poltsa osatzeko Gipuzkoako Foru Aldundirako. Epea: irailak 15.  
• Berako Udalak administrazio laguntzaile bat behar du. Epea: irailak 18.  
• Oñatiko Udalean, administrazio orokorreko teknikaria eta erdi mailako teknikaria behar dira. Epea: irailak 21.  
• Arrasateko Udalerako idazkari bat behar da. Epea: EAON argitaratu zain.  
• Bilboko Udalerako hainbat lanpostu: 43 administrari lanpostu, administrazio orokorreko 4 teknikari eta administrazio orokorreko 29 laguntzaile. Epea: EAON argitaratu zain.

### ■ IKASTAROAK

• Autoenplegua eta enpresa ekimenak sustatzeko ikastaroa, Udal Enplegu Zerbitzuak antolatua, urritik azarora burutuko da, izena emateko epea zabalik.

Informazio gehiagorako:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 943 77 00 65

“Ez dut argazki artistiko berezirik egiteko asmorik izan, gauzak diren bezala jasotzeko baizik”

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Etxebizitza salgai Bizkaia Etorbideko 14. zenbakian. Tel.: 943 79 22 92.

• Etxebizitza salgai Torrevejan, Alicanten. Berria da, estrenatzeke eta altzariak eta etxeko tresna elektrikoak berri-berriak ditu. Bi logela, egongela, sukaldea. 7.500.000 pta. Tel.: 943 71 52 45. Isabel.

### 2. Erosi

• Etxebizitza erosiko nuke Arrasaten. Tel.: 943 79 09 97.

### 3. Errentan emateko

• Pertsona batentzako logela bat alokatzen da, astelehenetik igandera bitartean. Euskalduna izatea eskatzen da. Tel.: 943 79 72 99 / 943 79 62 04 (Maria Bergaretxe).

• Bakarrik bizi den emakume batek bi oheko gela bat alokatuko luke. Interesatuek deitu 943 79 21 30 edo 943 79 82 43 telefonoetara (Mari).

• Etxebizitza alokatzen diet ikasleei Donostiako Antigua auzoan. Tel.: 943 45 17 29.

### 4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza behar dut Arrasaten, lan tokiz aldatu dudalako. Tel.: 943 78 91 10. Dorleta.

• Karrerako bigarren maila egiten ari diren lau neska arduratsuk etxebizitza alokatu nahi dute Arrasaten. Egoera oneko etxebizitza nahi dugu. Elgoibar. Tel.: 943 74 10 74. Bidatz.

• Neska batek etxebizitza alokatuko luke Arrasaten. Tel.: 943 79 88 13. 22:00etatik aurrera deitu.

• Arrasaten edo Aretxabaletan etxebizitza alokairuan hartuko nuke, edo gela bat alokatutako etxebizitzan. Tel.: 943 79 45. Oskar.

• Lau lagunentzako etxebizitza alokatu nahi dugu Arrasaten. Tel.: 943 64 49 41/946 88 08 48.

• Etxea alokatu nahi dugu Arrasaten edo inguruetan. Nahiago dugu bero-gailua badauka. Tel.: 944 61 24 29/94461 96 93.

### 5. Etxe konpartituak

• Iruñean etxebizitza osatzeko lagun bat behar da. Etxea berria da eta ego-

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdtu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 943 77 05 65

ARRASATE PRESS • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

**Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.**

era onean dago. Tel.: 943 79 59 12.

• Abuztu erditik edo irailetik aurrera gela bat behar dut Arrasateko etxe batean. Dei egin 943 71 24 00 (221 luzapena, David) telefonora, bulego orduetan.

• Bi neska behar dira Donostiako erdialdeko etxebizitza bat osatzeko (98-99 ikasturtea). Tel.: 943 79 68 32 (Anabel)/943 79 38 42 (Jone).

• Pertsona batentzako gela alokatzen da San Andresen. Euskalduna bada, hobe. Tel.: 943 79 92 99.

• Mutil bat behar da etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 79 89 73. Arratsaldez.

• Bilbon etxea osatzeko neska bat edo mutil bat behar da. Tel.: 943 79 69 24. Gaeuz deitu.

• Etxebizitza behar dut, beste batzuekin bizi ahal izateko. Tel.: 944 12 54 95. Deitu 15:00etatik aurrera. Yolanda.

• Etxebizitza osatzeko lagun baten bila ari gara. Etxea Altamiran dago. Handia eta merkea da. Tel.: 943 77 13 20

• Etxebizitza behar dut, beste batzuekin konpartitzeko. Tel.: 944 46 29 17.

• Logela bat behar dut ikaslez osatutako etxebizitzan. Tel.: 943 72 48 76 (Rakel).

• Eskoriatzan etxebizitza konpartitzeko edo alokatzeko prest nago. Tel.: 943 81 67 99 (Victoria).

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Garajea salgai Roneoko etxeetan, 1. solairuan. Tel.: 943 79 18 70.

## LOKALAK/ORUBEAK

### 12. Saldu

• Kalealdean, baina Zarugaldetik gertu, 100m<sup>2</sup>ko bi solairuko toki salgai. Tel.: 943 79 07 24.

### 15. Errentan hartzeko

• Gazte talde batek toki bat alokatu nahi luke. Erdialdean eta merkea. Tel.: 943 79 55 48 (Mikel) 20:00etatik aurrera.

## LANA

### 17. Eskaintzak

• Esperientziadun neska gertu umeak edo pertsona nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 31 44.

• Andra euskalduna prest etxeko lanak egin eta umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 943 79 07 73.

• Neska arduratsua umeak zaintzeko prest. Interesatuek deitu 943 71 53 74 telefonora. Goizez, eguerdiz edo 20:00etatik aurrera.

• Emakume gaztea bulegoak, eskolak, etab... garbitzeko prest. Arratsaldeko orduetan. Tel.: 943 79 67 30. Deitu 20:30etatik aurrera.

• Psikologoak laguntza emateko gertu. Tel.: 943 79 86 28.

• Esperientziadun emakumea prest orduka garbiketarako egiteko (atariak, dendak, etxeak...). Tel.: 943 79 60 18 (M<sup>a</sup> Karmen).

### 18. Eskaerak

• Lan oso erraza, etxetik mugitu barik. Berri gehiago nahi baduzu, bidali gutunazala eta zigilua helbide honetara: A.M.R. Anboto kalea, 20 - 1. ezk. 20500 Arrasate.

• Zerbitzaria behar da irail hasieran taberna batean lan egiteko. Tel.: 943 79 60 43.

• Pertsona bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 79 56 30. 18:00etatik aurrera.

• Jatetxerako zerbitzaria behar da. Neska, euskalduna eta esperientziaduna. Tel.: 943 79 24 58.

• Neska euskalduna behar da denda batean saltzaile bezala lan egiteko. Bidali datuak. 259 postakutxa.

• Ingeles irakaslea behar da. Interesatuek deitu 943 79 24 59 telefonora.

• Filologian lizentziatutako irakasleak behar dira. Tel.: 943 76 06 87.

• Pizzeria batek zerbitzari bat behar du. Tel.: 943 79 11 25.

• Taberna baten sukaldean lan egiteko neska bat behar da. Tel.: 943 79 00 34.

• Esperientzia duen emakumea behar da senar-emazte helduak zaintzeko. Hobe euskaraz baleki. Tel.: 943 76 51 67 (20:00etatik aurrera).

**IRAKASKUNTZA**

**20. Eskaintzak**

• Ingeniaritza Teknikoko 4. mailako ikasle batek matematika eta fisika eskolak emango lituzke udan. Tel.: 943 79 51 68. Gorka (eguerdian deitu).

• First izeneko ingeles titulua ateratzeko talde bat osatu nahi dugu. Parte hartu nahi dutenek deitu 943 79 65 49 telefonora. Oskar.

• Ingeles eskolak ematen ditugu. Tel.: 943 79 24 59.

• Irakasle tituludunak eskola partikularrak ematen ditu. Tel.: 943 77 17 42.

• Ingeles eskolak emango dira urriaren 1etik aurrera. Tel.: 943 79 18 70.

**21. Eskaerak**

• Estatistikako eskolak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 79 12.

• Paleografia eta Diplomatikako eskolajaso nituzke uztailean. Tel.: 943 79 94 92. Pilar.

**MOTORRA**

**23. Saldu**

• Derbi GPR Sport 75 cc salgai dago. Modu onean. TEL.: 943 79 67 50.

• Lada Niva 4x4, 1.700 injekzioa, SS-AX salgai. Urte eta erdi eta 200.000 pta extratan. Prezio interesgarria. Txakurrentzako gurdia oparitzen da. Tel.: 943 77 00 39.

**DENETARIK**

**26. Saldu**

• Eskaintza berezia: american Pit-bull terrier txakurkumeak salgai. Marroiak, Red Nose eta Patrick odolekoak. 35.000 pta. Txertatuak. Tel.: 943 79 37 17.

• Fotokopiagailua salgai. Egoera onean dago. Tel.: 943 77 04 98.

• Etxeko altzairuak saltzen ditut. Oso merke. Tel.: 930 67 33 87. Juan Antonio.

• Sofa-ohet bat salgai. Berrida. Prezio onean. Tel.: 943 79 03 59.

• Bi oheko logela bi eta ohe armairu bat kentzeko asmoa dugu. Norbaitek nahiko balitu, deitu 943 77 10 31 telefonora (Luis).

• Errepideko bizikleta saltzen dut, 15.000. Tel.: 943 79 60 81.

• Errepideko bizikleta salgai. Karbonozko koadroa eta 55eko neurrikoa. Piezak Campanolo markakoak dira. Merke. Tel.: 943 79 87 10 (21:00etatik aurrera).

**27. Erosi**

• Bigarren eskuko zehar flauta lortu nahiko nuke. Saldu nahi baduzu, deitu telefono honetara: 943 79 54 07. Ines.

• Disko singleak eta LPak erosten ditut. Tel.: 943 52 65 77.

**28. Trukatu**

• Nire gitarra akustikoa, espainola batekin trukatuko nuke. Tel.: 943 79 54 46 (Iñaki). Deitu bulego orduetan.

**31. Galdu**

• Irailaren 1ean Setter arrazako hiru hilabeteko txakur emea galdu zen. Zuria da, mota marroidekin. Tel.: 943 79 59 61.

• Joan den ostegunean, irailak 3, zilarrerzko eskuturrekoa galdu nuen anbulatorioan. Aurkitu duenak, mesedez deitu 945 44 53 53 telefonora. Sarituko da.

**32. Aurkitu**

• AH hizkidun bizkar zorro berde-laranja morea aurkitu dugu. Arrasate Press-en galdetu. Arantzazu.

**HARREMANAK**

**35. Kontaktuak**

• Kaixo. Xabi naiz eta sexu harremanak izan nahiko nituzke 33 urte-tik beherako mutilekin. Asmo bera baduzu, idatzi postakutxa honetara: 91 zenb. Oñati 20560 Gipuzkoa. Nire aldetik, erabateko zuhertasuna.

**ARRASATE PRESSEko harpidetza berriztu nahi duzula?**



Arrasatetik kanpo dauden lagun edo senitartekoei harpidetza oparitu nahi diezula?

**ORAINTXE DUZU GARAIA!**

Arrasatetik kanpo dauden arrasatearrek hemengo berriak eta jendea gertuago izan ditzaten Gure kontu korrontean **3.000 pta.**ko diru sarrera egin dezakezu irailaren 31 baino lehen, kontu korronte zenbaki hauetako batean:

- **KUTXA 001.026694.8 (Portaloiko bulegoa)**
- **EUSKADIKO KUTXA 001.002.7600 (Iturriotz kaleko bulegoa)**

Ingresoa egitean garbi adierazi, mesedez, aldizkaria zeinen izenean bidali behar den. **ARRASATE PRESS** atzerrian bizi den norbaiti bidali nahi badiozu, zatorz gure bulegoetara eta jakinaraziko dizugu.

**Tel.: 943 79 02 26 Helbidea: Otalora Lizentziatua, 31 • ARRASATE**

“Klasikoen  
 aukeraketa  
 iraupen luzeko  
 28 disko  
 konpaktutan”




**Egunkaria**

**+ 550 PTA.**

IRAILAREN 12TIK AURRERA,  
 ASTEAZKEN ETA LARUNBATETAN

- |              |                  |                   |             |                 |                     |
|--------------|------------------|-------------------|-------------|-----------------|---------------------|
| 1- Vivaldi   | 6- Mozart (1)    | 11- Beethoven (2) | 16- Liszt   | 21- Bizet       | 26- Rimski-Korsakov |
| 2- Bach (1)  | 7- Haydn (2)     | 12- Berlioz       | 17- Wagner  | 22- Mussorgski  | Glinka              |
| 3- Haendel   | 8- Mozart (2)    | 13- Mendelssohn   | 18- Verdi   | 23- Tchaikovski | 27- Mahler          |
| 4- Bach (2)  | 9- Beethoven (1) | 14- Chopin        | 19- Strauss | 24- Dvorak      | 28- Ravel           |
| 5- Haydn (1) | 10- Schubert     | 15- Schumann      | 20- Brahms  | 25- Grieg       |                     |





Naiara Gorroño.



Marijo Deogracias.

## Opor ostean ere Kerizpean

Arrasate Irratian ere bukatu dira oporrak eta dagoeneko hasita daude lanean. Hala ere, Aitziber Aranburuzabala eta Garikoitz Kortazarren ordezkokoak iristen diren bitartean, programazioa nahiko murrizta izango da.

### KERIZPEAN

Egunero, astelehenetik ostirala bitartean, Kerizpean irratsaioa ematen ari dira, goizeko 09:00etatik 11:00etara.

Lehen orduan albisteak ematen dira eta errepassoa egingen zaio eguneroko prentsari, hango eta hemengo albisteak harrotuz. Txoko bat dago albiste bitxiei eskainia. Eta datorren astetik aurrera, Printze Txikia ipuina emango da, ataletan banatuta. Ipuin honek pare bat aste iraungo du. Bigarren orduan, osterara, musika da nagusi. Era guztietako doinuek betetzen dituzte uhinak.

Dena den, ideia edo iruzkinen baten berri eman nahi izanez gero, deitu bi telefono hauetara. 943 79 58 39. Erantzungailua: 943 79 58 40.

# Aldaketak ATBren albistegian

ATB ikusteko ohitura dutenak konturatuko ziren *Berriak* saioak aurpegi berria duela: Marijo Deogracias antzuolarrera. Zer dela eta?

Abuztuaren 31n Naiara Gorroñoak aurkeztu zuen azkenengoz albistegia. Irailaren hasieratik Iruñean dabil. Hemendik aurrera Euskal

Telebistak Nafarroako hiriburuan duen erredakzioan egingo du lan, ETB arratsaldero Nafarroari eskaintzen hasi den albistegia prestatzen.

Naiarak lau bat hilabete egin ditu *Berriak* eta *Astebete* saioak aurkezten eta bere lan onaren marka utzi digu. Zorretik onena opa diogu lanki-

de izan garen guztiok.

Orain, berriz, Naiararen ordezkoa bilatzen dugun bitartean, Marijo Deograciasek aurkeztuko du albistegia. Marijo gure kirol aditua da eta parte hartzen du telebistako albistegiak prestatzeko lanetan.

Aupa Marijo!

## ■ ATBko programazioa

LARUNBATA, 12	ASTELEHENA, 13	ASTEARTEA, 14	ASTEAZKENA, 15	OSTEGUNA, 16	OSTIRALA, 17
	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak.</b>	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak.</b>	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak.</b>	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak.</b>	20:00/20:30/21:00 <b>Berriak.</b>



**I**gande honetan abiatu-ko dira Arantzazuko Santutegira erromes arrasatearrak, antzina-ko ohiturari jarraituz. Guk orain berrogei urte baino gehiagoko argazkia eskuratu dugu, Arantzazuko basilika berria oraindik egiten ari ziren garaikoa. Urte hartan ere, 1955, arrasatear asko joan ziren erromesaldian Arantzazuraino.

Argazkiko neska arrasatearrak talde berekoak ziren.

Oñatitik abiatuta, oinez joan ziren Gipuzkoako patroiarri agur egitera. Goian zeudela, argazkirako jarri, eta beste bi lagun ezezagun (behean makurtuta dauden bi gazteak) sartu zitzaizkien argazkian.

Goiko lerroan: Pili Aranegi, Karmen Oianguren eta Espe Lizarralde.

Behean: Marivi Zumelaga, Espe Heriz, Mari Paz Zabalo eta Maria Aranegi. Makurtuta: ezezagunak.

Argazkia eta informazioa:  
Espe Lizarralde

... **LILURAK** ...  
OIHALAK  
Denboraz prestatu  
Maritxurako jantzia  
Zerkaosteta, 5 - Behea • ARRASATE • Tel.: 943 - 79 89 72

**PEÑAKOBA**  
Zarugalde, 46  
Tel.Faxa: 943 79 29 93  
ARRASATE  
Lizaur arkitektoa, 7  
Tel.: 943 78 05 60  
OÑATI

# Kabía

## ALTZARIAK



## APAINKETA

# Konfiantza osoz.

Gipuzkoa Etorbidea, 28 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 70

# Mondeo

Liderrak  
prezio-kalitatean



Norbaitetik Mondeo bat daukanean, 4 edo 5 ateduna nahiz wagon delakoa, edozein ibilbide egiten zaito laburregia. Izan ere, gidatzeak sortzen duen zirrarez benetan gozazten dutenek, Mondeo batekin inoiz baino gehiago gozatuko baitute errepedeaz. Duen zehaztasunagatik, leuntasunagatik, egonkortasun berebizikoaagatik, galga ematerakoan duen erantzunagatik, isiltasunagatik, bukatze mailagatik eta, noski, bere itxura erakargarriagatik, Mondeo bat inoiz frogatu ez duten horietakoa bazara, orainxe duzu bat gidatzeko aukera.

hitze<sup>g</sup>in de<sup>z</sup>agun  
902 442 442

[www.ford.es](http://www.ford.es)

RS 24V 170CV 3.550.000 pta

Ghia 16V 130CV 2.840.000 pta

Ghia TD 90CV 2.740.000 pta

CLX 16V 115CV/TD 90CV 2.390.000 pta

DEBA GARAIKO  
KONTZESIONARIO  
OFIZIALA

**MUGARRI**

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE • Tel.: 79 07 44

